



ARGIA




BUNKER FRANKISTAK PIRINIOETAN

Errepresioaren hormigoizko historia ezezaguna

26-31. orriak

2.855 | 2024 / 01 / 21 | 4,00 €



**Txipen industria,
ur kontsumitzaile
erraldoia**

13 | INGURUMENA



**Esposito gisa
abandonatutako
haurrak**

16 | EVA GARCÍA MAGRIÑA



**Euskara hutsezko
liburuen aurtengo
hitzorduak**

44 | DOINUELE

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #292
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



URAREN ZIKLOA

KLIMA ZORATZEAREN BESTE GAKO HORI

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIAK: **HORMIGOIZKO MUGAK / 'BORTXAZKO LANAK DIKTADURA FRANKISTAN', ANGEL SANTISTEBAN**

Iritziak

- 21 | BALEREN BAKAIKOA
- 22 | TERE MALDONADO
- 23 | MIKEL OTERO
- 23 | ARANTZA GUTIERREZ
- 24 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 43 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
LIDE HERNANDO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

32 | EUSKAL PRESO POLITIKOEN EGOERAZ

Sareko kide Mikel Mundiñano elkarrizketatu du Xabier Letonak. Euskal Preso Politikoen Kolektiboan 142 preso daude eta horietatik zenbat dauden gradu bakoitzean azaldu du. Legearen arabera, 110 preso erdi askatasunean edo baldintzapeko askatasunean egon beharko lirateke, baina Auzitegi Nazionalak zergatik ukatzen dien azaldu du. Kaleko presioaren garrantzia nabarmendu du.



GORKA RUBIO / FOKU

Elkarrizketak eta erreportajeak

13 | NET HURBIL

Ur gabeziak ere murriztu dezake txipen ekoizpena

Nicolas Goñi

16 | PERTSONAIA | EVA GARCÍA

"Fraisoro estigmatizatua argitara emateak garrantzia du"

Miel A. Elustondo

26 | HISTORIA | FRANKISMOKO BUNKERRAK

Hormigoizko orbainak Pirinioetako mugan

Urko Apaolaza

35 | NAZIOARTEA | NEPALGO KUMARI

Jainkosa bilakatutako neskatoen bizitza

Nerea Menor

44 | KULTURA | DOINUELE

Aurtengo zortzi hitzorduak

Estitxu Eizagirre

46 | KULTURA | ZINEMA

The Wicker Man-ek 50 urte

Julen Azpitarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuzá

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzaz interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





Besteen lepotik burua

“Erakutsi duzu enpresa baten garapena eta giza garapena ez direla kontrajarriak”, esan dio Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak Andres Arizkorretari, jakitun izanik bere multinazionalaren tren eta tranbienen truke CAFek gauza bakarra eskatzen duela: dirua. “Euskadira” sosak ekarriz gero, hemendik kanpo enpresaren jardunak eragiten duena bost axola. “Gu” lehenak gara munduan, Palestinan hirugarrenak. Matematika kontua da. Baina zorionez euskal kapitalismoaren mentalitate kolonialaren lotsak ezin dituzte ezpata dantzek, ekitaldi arranditsuek eta urrezko dominen distirak ezkutarazi. Gizakien bazterketa eta zapalketa sistematikoarekin negozio itzela egin eta Ekialde Hurbilean faxismoa betiketozten laguntzen ari den enpresaburuak alfonbra gorria jarri diete agintariek herritarren izenean. Genozidioa geldiarazteko kalera atera diren herritarrei Ertzaintzaren kolpeak eskaini dizkie “pertsonek ongizatea” helburu ei duen gobernuak.

ANDONI CANELLADA / FOKU AXIER LOPEZ

Erakunde ekologistek neurri zorrotzak eskatu dituzte, plastikozko bolatxoei aurre egiteko

IZARO VILLARREAL LAUROBA / LEIRE ARTOLA ARIN

Abenduaren 8an Portugalgo itsasoan zama galdu zuen itsasontziaren plastikozko bolatxoak dagoeneko Euskal Herrira iristen ari dira. Erakunde ekologistek uste dute “premiatzeko neurri zorrotzak” hartu behar direla, mikroplastiko horiek oso sakabanduta daudelako.

Orain dela hilabete itsasontzi batek zamaren zati bat galdu zuen Atlantikoan nabigatzen ari zela: Portugalgo iparraldean kontainer bat uretara erori zitzaion. Itsasontziaren armadoreak emandako datuen arabera, kontainerrak plastikozko bolatxoak mila zaku zituen, eta zaku bakoitzak 25 kilo zituen, 25 tona inguru plastiko jausi ziren itsasora. Asteak daramatzate bost milimetro baino gutxiagoko plastikozko milioika alek Galiziako kostaldera iristen.

Ondorengo erakunde ekologistek ohar bateratua atera dute: Greenpeace, Ekologistak Martxan, Lurraren Lagunak, SEO/BirdLife eta WWF. Besteak beste, administrazioen arteko koordinazioa eskatu dute, ingurumenean duen eragin larriagatik eta giza osasunerako izan dezakeen arriskuagatik. Itsas korronteez azkar hedatu dituzte plastikozko bolatxoak eta Euskal Herrira iritsi dira dagoeneko.

Itsasotik ‘pellet’ak jasotzeko aurreikusi dute Arrantzaleen Kofradien Federazioekin lankidetzan aritzea

Egoera hau “ingurumen-krisitzat” jo dute erakunde ekologistek eta bost eskakizun garbi egin dizkiote Galizako Xuntari: administrazioen arteko lankidetzat indartzea; zorrotzasun zientifikoa eta gardentasuna, “saminez” gogoratzen baitute Xuntak isuriaren aurrean izan zuen erreakzio eza; isurketa erretiratzeko koordinazio hobea eta jardunbide egokiak aplikatzea; ingurumen-inpaktuen prebentzioak epe luzera jarraipen egokia izatea; erantzukizunak ikeritu eta argitzea.

HERRITARREN PROTESTAK

Noia Limpia elkarteak eta beste zenbait herritar talde kexu dira Galiziako Gobernuarekin. Salatu dute gobernuak ez dela garaiz erreakzionatu, eta ez dituela bestelako baliabideak martxan jarri kutsadurari aurre egiteko. Garbiketa lanak

boluntarioki egiten ari diren herritarrei ere laguntzeko baliabiderik eskura jarri ez izana kritikatu dute. Protesta modura, Xuntaren Compostelako eraikinetako baten aurrean bolatxo-zaku batzuk utzi dituzte.

ALERTA PLANA ABIATU DU JAURLARITZAK

Itsasertza alerta plana abiatu du Eusko Jaurlaritzak, Gobernu Kontseiluaren bilkuran. Josu Erkoreka lehen lehendakariordea eta Segurtasun sailburua da krisi mahai honen burua, eta planaren xedea da saihestea bolatxoak itsasertzeraino iristea, aldezturik itsasoan bertan jasotzea. “Zailtasunak” izango dituztela iragarri dute, bolatxoak dilistatzen baten tamainakoak baitira, batzuetan ia ikusezinak. Itsasotik ‘pellet’ak jasotzeko aurreikusi dute Arrantzaleen Kofradien Federazioekin lankidetzan aritzea, haiek arduratu daitezten. Jaurlaritzak jakinarazi du posible diren bitartekari eta baliabideak jarriko dituztela ‘pellet’en garbiketarako, eta Gipuzkoa eta Bizkaia Diputazioekin adostu dute hondartzen garbiketan lagundu beharko dutela, behar izanez gero. Gainera, AZTI-ri eskatu diote Galiziako eta Asturiasko kostaldean agertutako bolatxo zurien mugimendua monitorizatzeke, etengabe zaintzapean izan ditzaten.

Oihane Cabezas AZTIko ikerlariak Eitb-n azaldu du bolatxoaren ondorioz arrainak hiltzen direla: “Arrainen arrautzen oso-oso antzekoak dira eta, horregatik, hegaztiak eta beste arrain batzuek ere irentsi egin ditzakete. Urdailean pilatuta gelditu daitezke, eta asko irentsita, urdailak bete egiten dira eta animalia horiek hil egiten dira, ezin direlako elikatu”. Ingurumenean ere kalteak ditu: “Ingurunean geruza moduko bat sortzen dute, eta hor dauden florak eta ezin du fotosintesia egin”. Cabezasek ohartarazi du ‘pellet’ak txikitu egin daitezkeela, higadura dela eta, mikroplastiko bilakatu direla, eta kalteak areagotu. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Haur euskaldun izatea



UXUE APAOLAZA LARREA

gande goiza Tolstoiren ipuin bat irakurtzen pasa genuen, irakurtzen, euskaraz: “Zenbat lur behar du gizon batek?”. Eta Elena Odriozolaren marrazkiak ezagutu ditu Gulliverren abenturetan ikusi zituelako, *Ipuinen harian* gozatu. Diskotekero jartzen da gero, maiz, eta azken ipuin hori itzuli zuen Alberdik katalanetik itzulita, *Enaren kontuekin dantzatu gara*, eta Tapiaren ahotsa eta trikitia identifikatu ditu, *Egon ala ez egon* diskotik ezagutzen zituenak (eta berak jakin ez, baina Izagirrenen hitzak ere badakizki): Tapia politasun zigilua da.

Aspaldi entzun zituen Izagirrek berak gurera ekarritako satorraren hitzak, “Ze nazka!” esaten ikasi Astizekin, eta “gaur poemak nahi ditut” eskatzen du nahi duena joemak badira, Bilbaoren hotsak, edo Igerabiderekin batera gorputzarekin jolastu. Dodo bat zer den ondo azaltzen daki, eta zer duda duen dodoak, Astizi eta Muguruzari esker. Berak ez daki, baina ari da bere gustuak eratzten. *Lo potolo* liburuan Canorenak seinalatzen ditu aurkibidean (irakurtzen jakin gabe) lehenengo, sukaldean itsasoak eta basamortuak eratu zizkion bera, eta Bilbaorenak, eta Alberdirenak, eta Lertxundirenak, Xola eskatzen du “berdin zait dena ulertzen ez badut”, luze egon nahi duenean entzuten. Eta umeek ere behar izaten dutenez noizean behin zerbait arina, edo adrenalina, zain izaten du *Super Patata*. Zain du, baita ere, Landaren krokodiloa, gure garunaren geruza sakonenen sinbolo, Dovstoyeskiren eta Mrozeken ipuinekin lotuko dituen.

Erdarak ere sartzen dira gure txokoan, gozaten ditugu. Baina zer ederra, zer luxu, gaur, ume euskaldun izatea. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Justizia

Azaroan, Silvia emakume arrazializatuari hainbat ukabilkada emateagatik kartzelazigorra ezarri zioten ertzain bati. Orain, grabazio erabakigarriak desagertu dira eta Jaurlaritzak epaiketa baliogabetzea eskatu du. SOS Arrazakeriak grabazioen desagertzea ikertzeko eskatu du.

Hezkuntza

2024-2025 ikasturtean 0 eta 3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa doakoa izango da Nafarroako haur-eskoletan, bai Foru Gobernuak zuzenean kudeatzen dituen eskoletan, bai gobernuarekin hitzarmenak dituzten udalen menpekoetan ere.

Euskara

Adimen gaitasun handia duten ikasleak antzemateko probak sistematizatu eta asko ugaritu dira EAEko ikastetxeetan, baina bai Lehen Hezkuntzako bai Bigarren Hezkuntzako probak gaztelaniaz egin behar izaten dituzte ikasleek, ez daudelako euskaraz.

Kopiak



ULA IURETAGOIENA

Berriak dio Arkitekturako Harvard unibertsitateko irakasle bat salatu dutela tesiaren zati bat kopiatu izanagatik. Duela urte pare bat, Princeton-eko dekanorearen plagio salaketa baten eskandalua zabaldu zen, eta hango kasua gertuagotik jarraitzeko aukera izan genuen, kopia-arkitekto espainiarra zelako eta hark bizitako prozesu guztia- ren berri liburu batean jaso zuelako. Goi mailako akademiaren estoldak kaleratu zituen, esanez, erakundeari suposatzen zaion ezagutza eta pentsamendu librea- ren etxea izatetik urruti, boterea mantentzearen ordainetan irakaslegoa ideologia baten militante bilakatzen dituela. Egiazko gertakarietan oinarrituriko telesaila idazteko tramak dira biak ere: kopia ekintza maltzur onartezina deklaraturata, gezurra esatearen moralari etekina ateratzen zaio, aitortzerik ez diren botere egiturak isilpean gordetzeko.

Baina eraikinak diseinatzearen alorrean, kopiatzea zilegi izan da. Izatez, garai historiko luzeetan zehar arkitektura egitea oinarri batzuen kopia egiteko ariketa izan da. Eraikitze gida orokor eta estetika bat osatuta zegoen eta arkitektoak arauak aplikatzen zituen tokiko baldintzetara egokituz, kopiaren barianteen arkitektura eginaz. Dena dela, erai- kin batean zaila izaten da kopiatua izan dela salatzea, eta jurisprudentzia legal eskasa dago arkitekturaren eremuan. Bestalde, ez kopiatzeko behar bat sortu da garaikidetasunak eraikinei originaltasuna eskatu dionean. Arkitektoak aha- legin handiak egiten ditu bere sormen originala ezaguterraza izan dadin, eta horretarako ikusgarritasunera jo izan du, hots, forma deigarri bat egitera.

Kopiatzea pedagogikoa izan daiteke unibertsitatean; behin kopiatzea ekintza publikoa egiten denean, zenbat ikasten den kopiatzen! Kopiatzearen saiakeran beti dago aurkikuntza pertsonalik, ezin baita goitik behera kopiatu, eta orduan agertuko da berritasuna eta ekarpen originala, seguruenik, txikia eta umila. Eta horrela onartzen dugu arkitektura jakintza kolektibo bat dela, kopia kolektiboa. ●



David Shannon idazlearen *No, David!* liburuaren irudi bat.

Ipurdi biluzi zentsuratuak eskoletan

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

2022-2023 ikasturtearen hasieran, 300 bat argitalpen eskoletatik kentzea exijitzen zuen lege bat jarri zuten indarrean AEBetako Floridan, *Don't Say Gay* edo "Ez esan gay" izenekoa. Ipuin, nobela zein poesia, sexu-aniztasunari eta LGBTIri loturikoak izan ziren zentsuratu asko. Familia eredu tradizionalatik eta heterosexualitate aldizkariak diren diskurtsoak eskoletatik ezabatu nahi dituzte, "belaunaldi berrien mesedetan", Ron DeSantis gobernadore errepublikanoaren esanetan. Zerrenda beltzean sartu diren liburu guztiek daukate "eduki pornografiko" deritzon etiketa. Aski da ipurdi biluzi bat daukan ilustrazio bakar bat agertzea, bost urteko haurrari *kaka* esan eta hura eskuetatik kentzeko.

2024ari ekiteko, beste ia 400 libururen zerrenda argitaratu dute. Armairu beltzean sartu dituzte *Game of Thrones* sagaren liburu guztiak, *Madame Bovary*, kristautasuna modu utopiko edo distopiko batean kritika dezaketen *Paradise Lost*, *The Pillars of the Earth* edo *Angels & Demons*, Aldous Huxleyren *Brave New World*, Isabel Allenderen *La casa de los espíritus* edota Federico García Lorca- ren *La casa de Bernarda Alba*.

Milaka haur eta neraberi bete-beteko zentsura ezarri diete praktika makia- velikoekin; funtzionario talde bat arduratzen da eskoletako liburuak gainbegi- ratzeaz, eta talde hori gainbegiratzeko beste funtzionario talde bat dago. Jakina, agindutakoa betetzen ez badute, lanpostua galdu eta erantzukizun penalekin mehatxatu zaie. Aurrekaria ezarri zuten iazko martxoan: unibertsitateko irakasle bat dimisioa ematera behartu zuten, Miguel Ángel Buonarrotiren *David* eskultura biluzi klasikoa ikasleekin lantzeagatik. Biluztasuna eta pornografia ez direla gau- za bera defendatu zuen irakasleak.

Praktika totalitariook ez dira harritzekoak AEBetan. Are gutxiago polarizazio garaioan, eta gutxiago hauteskunde zikloan sarturik daudenean eta DeSantisek Trumpekin lehiatu nahi duenean alderdiaren primarioetan. Baina harritzen ez gaituena ere bada kanpokoa begi batzuekin ikusi eta etxe barruan antzera jardutea. Guraso PIN-a delakoaren aferak aurrekari mordoa ditu geurean, eta sexu-he- ziketari hain atzeraturik dagoen gizarteak baditu errudunak, gizartean bertan, eta urrunago joan gabe: zergatik itxi zuten Gasteizko Porno Eskola, sexu heziketa ber- rritzaileago bat zekarrena? Nola lantzen da Alardea Irunen eta Hondarribian, eta nola Euskal Herriko eskoletan? ETak, berriz, nolako trataera du ikas-liburuetan? Haurrei "dena libre" uztearen eta heldukeriaz jokatzaren artean badira grisak, egon beharko lukete behintzat, zentsurarik gabeko heziketatik hasita. Gurasoen presioak gero eta fuertekoak dira garaioan. Begi asko ditu hezkuntzak. ●

%148,5

da okupazio tasa, abenduaren lehenetik atxilotu dituzten 75.000 pertsonetatik 50.000 preso inguru dituzten Frantziako kartzeletan. 2.748 presok lurrean ezarritako matalazetan lo egiten dute. Presondegien Nazioarteko Behatokiaren datuak dira.

530

ondasun lapurtu zituzten agintaritzak katolikoek 1978tik 2015era, gutxienez. Frankismoan immatrikulazio-kanpainari ekin ziotenetik, Elizak milaka eta milaka jabetza jarri ditu bere izenean Espainiako Estatuan.

300

BMW auto erosiko ditu Eusko Jaurlaritzak Ertzaintzarentzat, datozen hilabeteetan. 70.095 euroan bakoitza, 23,6 milioi euro bideratuko ditu horretara.

“Elikagai sistema kontrolatzen duten enpresa berak dira haragi artifiziala lantzen ari direnak”

AITOR ARANBURU

Haragi eta esneki ekologikoak lantzen dituen Olaberriko Etxeberri Goikoa baserriko abeltzaina.

EGONARRIA PODCASTA
argia.eus (2024-01-11)



“LAUDIOKO OSASUN ZENTROKO HERRIOTZAK INFLEXIO PUNTUA IZAN BEHAR DU”

OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO HERRI PLATAFORMAK

Laudion gizon bat hil da Osakidetzako osasun zentroan, bihotzkeoak jota. Une horretan ez zegoen medikurik bertan, eta erizainek ezin izan zuten ezer egin.

2024-01-14

“Ikastola bat ezin da itxi auzapez baten burugogorkeriagatik edo euskararen kontrako jarrera duten hautetsiak egoteagatik”

HUR GOROSTIAGA

Seaskako zuzendaria. Beskoitzeko herriko etxeak jakinarazi du uztailaren 6rako hustu beharko dutela lekua. Protesta egin dute ikastolako guraso eta ikasleek.

BERRIA (2024-01-13)



Ongarria



DIANA FRANCO

Egunotan ideia bat darabilt buruan, eta ideia hori gauzatzeko, erabiltzaileentzat eskuragai dagoen adimen artifizialen bat erabiltzeko aukeran pentsatu dut. Ez dut inoiz halako adimen artifizialik erabili proiektu bat sortzeko, eta beharbada lan astunena kenduko dit, nire arreta eta irudimena balio handiena duen lanetan jarri ahal izango dut. Ideia hori baztertu barik, bat-batean baratzearen eta lurraren aberastasunaren irudia etorri zait burura, uzta on baten bila eta lurra ahalik eta gehienetan erabili ahal izateko, zelan gizakiok ongarria erabili izan dugun, lurra indartzeko.

Ekonomian oinarri hain handia duten gizakion gizarteotan, antzera gabiltzala dirudi, ongarria kasu honetan teknologiak izango lirarteke, horrela pertsonen gaitasunak ontzeko; pertsonak ekoizpen ahalmen handiagoa izan dezaten teknologiak sortzen ditugu. Lehen, pertsona askoren lana zena, teknologiaren ongarriari esker, bakar batzuen bilakatu da. Baina lurraren ontzeak mugak ditu, eta gaur egun, lurra indartzeko eta uzta osasuntsu bat lortzeko ongarria gehitu beharrean, naturan berez aberatsak diren lurrak aztertzen hasi gara. Erri-zoma (sustraien sare) indartsua duten lurrek bizitza bultzatzeko aukerak handitzen dituztela ulertzen ari gara. Gizakion kasuan, bada gure gaitasun teknologien bidez ontzeko mugarik? Zelan eragin diezaioke gure osasunari muga hori gainditzeak? Norentzat izango dira teknologiaz ondutako gizakion emankortasunaren emaitzak? Agortzen ote da gizakion sorkuntza jarioa, hainbeste aukera eskaintzen dizkiguten teknologiak modu intentsiboan elikatuz? Onduak izango ez diren gizakiek, arrakala egoeran geratuko direnek, bizitza onak izateko aukerak sortzeko gaitasuna izango ote dute? ●



Israel eta bere genozidioa Nazioarteko Justiziaren ispilu aurrean

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Hegoafrikaren salaketari esker, erakunde sionista epaitzen hasi dira Nazio Batuen Erakundearen auzitegi gorenean, Herbehereetako Haga hiriko Nazioarteko Justizia Auzitegian. Hilaren 11ko goizean hasi zen epaiketa eta hegoafrikarren alegatuak izan dira lehenak. Sei abokatu aritu dira elkarren artean ongi harilkaturiko alegatua osatzen urtarrilaren 11ko goizean, Nazioarteko Justizia Auzitegian, Israelek Gazan buruturiko erasoek genozidio izaera dutela frogatu nahian. Gazako sarraskiari buruzko datu anitz, zenbait argazki eta bideo, Israelen ordezkarien adierazpen parrasta, Nazio Batuen Erakundearen oharrak zein Genozidioa Prebenitzeko eta Zigortzeko Itunari egindako erreferentzia xeheak... hiru orduz argitu nahi izan dute genozidioa dela Israelek Gazan buruturikoa.

Abokatuak aitzin hitz egin du Hegoafrikako Justizia ministro Ronald Ramolak eta Israelen jarrera historian kokatu du: "Palestinaren aurkako indarkeria eta suntsiketa ez ziren 2023ko urriaren 7an hasi; badira 76 urte palestinarrek zapalkuntza eta indarkeria sistematikoa pairatzen dituztela". Nelson Mandelaren hitzak oroitaraziz zehaztu ditu auziaren nondik-norakoak: Palestina herriari eskua

luzatuta, osoki kontziente gara gizateria bakar baten parte garena".

Adila Hassim eta Tembeka Ngcukaitobi abokatuak frogatu dute Israelek Genozidioa Prebenitzeko eta Zigortzeko Itunaren 2. artikulua zangopilatzen duela. Ondotik, genozidio horren "intentzioa argia" dela azaltzen aritu ziren. Netanyahu Israelgo Lehen ministroak, Israelgo Parlamentuak, kazetariak, soldaduek... Israelen genozidioaren aldeko mezuak orokortuak direla adierazi zuen Ngcukaitobi abokatuak. Max de Plessis abokatuak ondokoa adierazi zuen: "Legea baino gorago eta legetik at dagoela uste du Israelek eta hala nazioarteko legedia sakonki mespretxatzen dabil. Israelgo arduradunen eta soldaduen adierazpenetan daukagu genozidio intentzio horren frogak".

Hurrengo egunean, hilaren 12an, Israelen alegatuen txanda izan zen. Haien abokatuak ideia antzekoak azpimarratu zituzten, Israelgo Kanpo Harremanetarako Ministerioko aholkulari juridiko Tal Beckerrek adierazitakoaren bidetik: Hegoafrikaren kontakizun "manipulatzaila" eta "testuingurutik ateratakoa" da, gertakizunak erabat "desitxuratu" dituzte eta Israelen 75 urteko existentzia kontuan hartu ez izana deitoratu zuen, "juduen historia ezabatzeko" asmoz. ●

23. korrika

HARRO HERRI

Irundik Baionarat 2024ko martxoaren 14tik 24ra



korrika.eus

MARTXOAK 14, OSTEGUNA

Irun	16:00
Hondarribia	16:37
Irun	17:10
Hendaiola	17:26
Ziburu	18:45
Donibane Lohizute	19:08
Azkaine	19:40
Itsasu	21:58
Kanbo	22:43
Uztartitze	23:29

MARTXOAK 15, OSTIRALA

Hazparne	00:47
Donapaleu	04:11
Arie	05:29
Maule	06:53
Urdiñarbe	07:19
Larزابale	09:20
Donibane Garazi	10:58
Azkarate	11:24
Baigorri	12:16
Erratzu	14:14
Aritzun	14:34
Elizondo	15:08
Iurita	15:26
Eugi	18:23
Zubiri	19:02
Ero	20:00
Lintzoain	20:19
Garralda	21:57
Abaurrepea	23:11
Abaurregaina	23:30

MARTXOAK 16, LARUNBATA

Eskaroze	00:54
Nabaskoze	03:10
Domeñu	04:51
Zangoza	06:51
Oibar	07:36
Irunberri	08:39
Artieda	09:25
Agoitz	10:54
Urotz	11:52
Egues	13:01
Uharte	13:28
Sarriguren	13:51
Burlata	16:44
Atarrabia	17:04
Iruñea	17:14
Antsoain	17:29
Iruñea	17:43
Artika	18:05
Berriozar	18:16
Barañain	19:15
Zizur Nagusia	19:38
Noain	20:37
Biurrun	21:48
Eneritz	22:29
Obanos	23:04
Gares	23:22
Mendigorría	23:54

MARTXOAK 17, IGANDEA

Artaxoa	00:55
Tafalla	02:03
Miranda de Arga	03:55

Faltsez	05:31
Martzilla	07:47
Alesbes	08:38
Cadreita	09:45
Castejon	10:33
Tutera	12:24
Cascante	13:35
Tutera	14:47
Arguedas	16:18
Cadreita	17:22
Milagro	18:05
Azagra	19:25
San Adrian	19:58
Andosilla	20:23
Carcar	20:49
Lodosa	21:48
Sesma	22:45

MARTXOAK 18, ASTELEHENA

Aillo	00:10
Lizarra	01:09
Murieta	02:53
Antzin	03:12
Acedo	03:45
Kanpezu	04:54
Genevilla	05:26
Lapoblacion	06:20
Meano	06:34
Kripian	07:05
Ehllar	07:36
Guardia	08:15
Leza	08:50
Urizaharra	10:25
Trebiñu	11:56
Argantzón	12:55

Langraiz	13:45
Zuhatzu	15:09
Kuartango	16:13
Izarra	16:13
Murgia	17:02
Abetxuko	19:33
Gasteiz (Aldre Zaharra)	21:58
Elorriaga	23:11

MARTXOAK 19, ASTEARTEA

Dulantzi	00:16
Dallo	01:03
Zuhatzu	01:39
Donemiliaga	02:59
Agurain	01:59
Erdoña	02:35
Zaldubondo	02:56
Araia	03:20
Egino	04:12
Zioridia	04:33
Olazti	04:47
Altsasu	05:13
Bakaiku	06:09
Etxarri Aranatz	06:27
Arbizu	07:07
Lakuntza	07:14
Uharte Arakil	07:38
Hiriberri	08:25
Irurtzun	09:13
Latasu	09:34
Oskoti	10:24
Eritzegoiti	11:09
Gelbentzu	11:42
Larrintzar	12:14
Beruete	13:52

MARTXOAK 20, ASTEAZKENA

Orio	00:02
Zarauz	00:43
Zumaia	02:03
Zestoia	04:04
Azkoitia	05:31
Bergara	07:36
Elgeta	08:34
Ermua	09:58
Eibar	10:30
Soraluze	11:15
Elgoibar	12:09

Aldatz	14:24
Etxarri	14:31
Mugio	14:50
Lekunberri	15:03
Ultzi	15:39
Leitza	16:31
Goizueta	18:38
Hernani	20:20
Lasarte-Oria	22:15
Usurbil	22:53

MARTXOAK 21, OSTEGUNA

Bermeo	01:31
Mungia	03:56
Gorliz	05:43
Plentzia	06:08
Getxo	07:29
Leioa	08:37
Derio	10:20
Galdakao	12:33
Basauri	13:55
Arrigorriaga	14:58
Bilbo	16:59
Barakaldo	20:31

Mutriku	14:11
Ondarroa	15:03
Markina	16:21
Munitibar-Arbazegi-Gerrikaitz	17:45
Lekeltio	19:36
Elantxobe	21:37
Gernika	23:04

MARTXOAK 22, OSTIRALA

Abanto	00:27
Muskiz	01:18
Zalla	03:51
Gordexola	05:29
Artziniega	06:25
Aiara	07:56
Urdiña	09:14
Amurrio	10:12
Laudio	11:27
Arakaldo	12:35
Ugao	13:09
Zeberio	13:46
Areatza	15:01
Igorre	15:38
Dima	15:59
Amorebieta-Etxano	17:39
Elorrio	20:13
Durango	21:56
Mañaria	23:08

Sestao	21:52
Portugalete	22:08
Santurtzi	22:40
Trapagaran	23:18
Ortuella	23:55

MARTXOAK 23, LARUNBATA

Abanto	00:27
Muskiz	01:18
Zalla	03:51
Gordexola	05:29
Artziniega	06:25
Aiara	07:56
Urdiña	09:14
Amurrio	10:12
Laudio	11:27
Arakaldo	12:35
Ugao	13:09
Zeberio	13:46
Areatza	15:01
Igorre	15:38
Dima	15:59
Amorebieta-Etxano	17:39
Elorrio	20:13
Durango	21:56
Mañaria	23:08

Oñati	04:34
Zumarraga	06:54
Gabiria	08:05
Idiazabal	09:37
Beasain	10:57
Ordizia	11:48
Alegia	13:14
Ibarra	14:13
Andoain	15:57
Urneta	16:42
Hernani	17:25
Astigarraga	17:54
Donostia	19:22
Pasai Antxo	23:01
Lezo	23:33
Orereta	23:52

MARTXOAK 24, IGANDEA

Oartzun	00:33
Lesaka	03:25
Bera	04:01
Sara	05:17
Senpere	06:09
Arbona	07:38
Biarritz	08:07
Angelu	08:45
Baiona	09:17
Hiriburu	09:51
Mugerre	10:22
Baiona	12:29

Gatazkei eta arrazakeriari erantzuteko, elkarlana

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Azken hilabeteetan hainbat alditan hartu dituzte komunikabideen azalak lotarako lonjak okupatzen dituzten gazte migratzaileek: auzokideentzako arazo arriskutsu gisa izendatuta, eta ikuspuntu zigortzaile eta arrazistak elikatuta. Aurreko esaldiak herri eta batez ere hiriburu askotarako balio luke, baina Gasteizez ari gara. Iragan urriaz geroztik, ordea, "auzokideen arteko" elkarbizitza arazoei ikuspuntu komunitario batetik heltzeko elkartu dira Arana, Alde Zaharra, Errota eta Judimendi auzoetako auzo elkarteak. Arana auzo elkarteak presidente Peio Salazar Roldán de Aránguizekin mintzatu da ARGIA.

Gizarte ereduaren ondorio zuzena dela, eta, ondorioz, toki askotan errepikatzen diren egoerak direla dio Salazarrek. Nagusiki Magrebetik heldutako gazteez ari da, Euskal Herrira "auskalo ze ibilbide gogor eginda" heldu direnak, eta erabat babesgabe aurkitzen direnak, "laguntzarik, enplegurik, sarerik, aterperik gabe". Asko mugitzen dira: "Egon daitezke hiru hilabete Iruñean, gero Bilbora joan, beste herrialde batean probatu eta tarte baterako Gasteizera...".

Gehienen nahia enplegu bat lortu eta gasteiztarrekin bizitzea dela dio Salazarrek, baina aukera oso gutxi dute. Hutsik dauden lonjetan sartu ohi dira lo egiteko; bizi baldintza horietan, "gazteetako batzuek" drogen kontsumora eta lapurretara jotzen dute, eta gataz-

kak dituzte tarteka, beren artean zein gainontzeko auzokideekin.

Gazteei leporatzen zaie lonjen inguruko komertzio, kale edo ganbaretan lapurretak egin izana, borrokak izan dituzte haien artean, poliziaren esku-hartzeak ugariak dira, tartean batzuk bortizkeria handiarekin eta legez kanpo gazteak lonjetatik kanporatuta. Zenbait komunikabideren lanak, gainera, alarma elikatu duela dio Salazarrek. Horren guztiaren aurrean, kezka zabaldu da auzoan, eta auzokideen jarrerak askotarikoak dira, "auzokideak askotarikoak baikara". Horren adibide, auzo elkarteak gaiak hitz egiteko propio deitu dituen asanblada jendetsuetan entzun ahal izan direnak: "Baziren lonjen aurrean kontzentrazioak egin nahi zituztenak auzotik alde eginazteko; batzuk haratago zihoazen, zuzenean lonjan sartu eta indarrez kanporatu nahi zituzten; beste batzuek defendatzen zuten saretu eta elkar ezagutza sustatu behar dela elkarbizitza elikatzeke".

Oinarri batzuk partekatzen dituzte lau elkarteek. Batetik, argi dute irtenbidea ez dela gazteak nork bere auzotik kanporatzea beste toki batean egoera berdina errepika daitezen, ezta poliziala ere. Kontrara, elkarbizitza eta komunitatea dituzte ardatz. Instituzio eta alderdiekin ere bilerak egin dituzte: "Koordinatu daitezela eskatu diegu". Eskaera zehatza egin diote udal gobernari: gizarte etxe bakoitzean integrazioa sozial bat jartzea. ●

Euskaldunen aurkako enegarren eraso

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko epaitegitik heldu da euskararen aurkako azken sententzia: Jose Ignacio Hierro buru duen salak ebatzi du "diskriminazioa" dela udaltzain izateko euskara maila jakin bat eskatzea. Espainiako Konstituziora jo du epaileak, 23. artikulura, zera argudiatzeko: herritar guztiek dutela deialdi publikoetara berdintasunez iristeko gaitasuna.

Bi udaltzain lanpostu egonkortzeko egin zuen deialdi publikoa Donostiako Udalak, baldintza gisa, besteren artean, euskararen B2 maila egiaztatzea ezarrita. Lanpostua eskuratu nahi zuen batak abiatu zuen helegitea, eta Francisco Ignacio López Hera abokatua arduratu da defentsa egiteaz. Auzia irabazi berrikan, EITBren mikrofonoetan honela esan du: "Auzitegiak ez dira ari euskara diskriminatzen, baizik eta herritarren eskubideak defendatzen".

Donostiako Bagera elkarteak eta Euskalgintzaren Kontseiluak deituta, mobilizazioa egin dute herritarrek. "Oldarraldi judicialak ez du etenik. Sententziaren sententzia gero eta argiago geratzen ari da olatu erreazionario, atzerakoi eta euskarafobia", kritikatu dute.

Aldiz, epaile berak, handik egun batzuetara, Donostiako bi udal lanpostutan euskara eskatzea babestu du. Aldi honetan, adierazi du Digitalizazio Kartografikoko bi udal teknikariren lanpostuak lortzeko B2 maila behar dela.

AMURRION ERE, HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA

Bestalde, hizkuntza eskakizuna ezabatu du kirol-instalazioetarako lanpostuetan Amurrioko Udalak. Azpikontratutako zerbitzuan, orain dela zazpi urteko lizitazioan, lanpostuen erdietan 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu behar zen. Lizitazio berrian, Amurrioko Udalak ezabatu egin du baldintza. Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseiluak salatu du kirol-instalazioetan ez direla bermatuko herritarren hizkuntza eskubideak. ●



ARANA AUZO ELKARTEA

MERKATARITZA GERREK BAKARRIK EZ, UR GABEZIAK ERE MURRIZTU DEZAKE TXIPEN EKOIZPENA

Gero eta ezinbertzekoagoak zaizkigu erdieroale txipak, eta dagoeneko erronka geopolitiko bihurtu dira. Haien ekoizpena azkarki emendatuko dela iragartzen dute Txinan, AEBetan eta Europan, ezohiko finantzamendu publikoen bermearekin. Baina estatuen borondatea ez da industria horiek behar duten gauza bakarra: kopuru mugatua dauden mineralez gain, ur behar oso handiak dituzte, eta etorkizuneko baldintza meteorologikoek erabaki garrantzitsuak hartzera behartuko gaituzte.

 NICOLAS GOÑI

Gailu elektroniko guzietan daude, eta elektrizitate berriztagarriaren gorakadak horien ekoizpenaren igotzea ekarriko du hainbat sektore garrantzitsutan: energia ekoizpenean, industrian, garraioetan eta pantailadun gailu zibil eta militar guzietan. Txip erdieroaleak erronka geopolitiko handia bihurtu dira, eta Urko Apaolazak *Hasi da txipen gerra hotza: AEBen eta Txinaren arteko banaketa teknologikoa* erreportajeaz azaldu bezala, txipen gerra hotza martxan da AEBen eta Txinaren artean. Gerra honen azken mugimendua egin du Txinak: iazko uztailean lur arraroen esportazioak murriztea erabaki ondoren, abenduaren 21ean mineral horien erauzketa, tratamendu eta fusiorako teknologien esportazioa erabat geldituko duela iragarri zuen Txinako Merkataritza ministerioak. Testuinguru honetan, Europan *burujabetza* hitza modan jarri da, Txinaren menpekotasun ekonomikoa murrizteko ahaleginen esanahiarekin. Globalizazioaren garaian ez bezala, orain prezioa ez da ekoizpena non garatu

erabakitze irizpide bakarra: osagai estrategikoen ekoizpena birtokiratu nahi dute estatuak, prozesua horrela garestiagoa izanik ere.

MINERALEZ ETA TEKNIKAZ GAIN, URA ERE BAI

Txina eta AEB arlo estrategiko honetan lehiatzen badira ere, Taiwango TSMC enpresa da munduko lehen erdieroale ekoizlea. 2019an mundu mailako merkatuaren erdia menperatzen zuen, bere negoziokide nagusiak AEB, Japonia eta Herbehereetako enpresak izanik. Txip nanometrikoetan da bereziki aurreratua, horien %90 ekoizten baitu -horretarako ur aski dagoen bitartean, bederen-. TSMCk egunean 286 milioi litro ur kontsumitu zituen 2022an. Irudikatu 66 metroko aldea duen kubo bat, urez betea, egunero. Kantitate izugarri horiek ekoizpen prozesu konplexuari lotuak zaizkio: gasaren bidezko erauzketa, fotolitografia, akuaforte, olata elektronikoaren leuntzea, garbitzea eta leuntze kimiko-mekanikoa. Etapa guzirik horiek ur asko behar dute, batez ere leuntze eta garbitze etapek:

prozesuan zehar, txip bakoitza ehun bat aldiz ikuzten da. Gainera, prozesu honetan "ur ultra garbia" ("*ultra pure water*") erabiltzen da, eta litro bat "ur ultra garbi" lortzeko litro eta erdi ur arunt behar da -ur behar orokorra %50 emendatuz beraz-.

2020an egoera ezohikoa zen Taiwanen: azken 56 urteetan ez bezala, tifoirik ez zen pasa uhartean. Horren ondorioz, 2021eko lehen hilabeteetan lehorte gogorra pairatu zuten taiwandarrek, eta ur erabilera murrizketak egon ziren. 2021eko apirilean astean bi egunez iturriko urik ez zegoen etxeetan, eta arroz soroen %25 urik gabe gelditu zen... txipen ekoizpena ahalik eta gutien oztopatzeko. Hain zuzen, gobernuak erdieroaleen industria lehenetsi zuen, txipak elikadura eta edateko ura baino garrantzitsuagoak zirelakoan. Argi gelditu zen industria horri Taiwanek eman garrantzia. Horrelako egoerak ugarituko dira heldu diren hamarkadetan, klima modelo gehienek arabera Ozeano Barearen eskualde horretan tifoia bortitzagoak baina urriagoak izanen baitira.

TSMC enpresak Arizonako Phoenix hirian eraikitako Fab 21 izeneko fabrika. Inbertitzeak hirukoiztuko ditu Arizonan TSMCk, AEBen eta Txinaren arteko tentsioa ezitzeko.



ESKUALDE EZBERDINAK, ANTZEKO ARAZOAK

2021ko Taiwango ekoizpen murrizketen ondorioz, baita 2022tik aurrerako aldaketa geopolitikoen ondorioz ere, etorkizun hurbilean txip gehiago Taiwanetik kanpo ekoizteko asmoa dago. Ekoizpenaren birbanaketa horrek ur baliabidearen arazoa saihestuko duela pentsa genezake (mundu osoko hornidura ez baita herrialde bakar baten egoeraren menpe egonen), baina bi

2021eko apirilean, astean bi egunez iturriko urik ez zegoen etxeetan, eta arroz soroen %25 urik gabe gelditu zen... txipen ekoizpena ahalik eta gutien oztopatze

parametrok egoera zailduko dute: erdieroaleen eskaeraren igotzeak, eta ur baliabidearen aldakortasun handiagoak zein urritze globalak. Hain zuzen, azken urteotan TSMC eta AEBetako Intel enpresa fabrika berriak Arizonan plantatzen ari dira, Kolorado arroko ura erabiliz -noiz eta lehorte historikoa pairatzen ari diren bitartean-. CAP Arizonako ur agentziak argi ditu lehenetsunak: lehortearen ondorioz erabilera domestiko eta industrial



Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com




Evil Eye

%3 murrizten da, laborantzarako ur erabilera aldiz %100, hau da, ureztatu ohi ziren soro guziak (nagusiki barazkiak, kotoia eta artoa ekoizteko) urrik gabe daude. Ohio estatuan ere plantatuko da Intel enpresa, Columbus hiriko hiru ur hornidura estazioei laugarren bat gehituz 2028rako, hots, munduko txip fabrika handiena izanen denerako. Gugandik hurbilago, Grenoble inguruko Crolles hirian, STMicroelectronics enpresak duen fabrikaren kapazitatea bikoiztu nahi du, 2030erako Europar Batasunak bere ekoizpen gaitasuna mundukoaren %20ra igo nahi duelarik. 2021ean, fabrika honek egunean 11.6 milioi litro ur kontsumitzen zituen, hamar urtetan kopuru hori %57 igo delarik. 2020an jadanik, Grenobleko ur hornitze agentziak azaltzen zuen azpiegituren gehienezko erabilera mailara iristen zirela, eta egoera honek hornitze etete arriskuak zekartzala. Gainera, handitze honen aurkako *Stop Micro* kolektiboko laborari batek zioen bezala, txipak ez dira jaten. Alpetako glaziar guziak urtuz gero, zertarako erabiliko da geldituko den ura?

URA BERRERABILIA ARREN, UR KONTSUMOA GORA

Enpresa horiek ur beharraren arazoak jabetu dira, eta urak birziklatzen saiatzen dira. Intel enpresak 2030erako erabiltzen duen ur kopurua baino gehiago garbi itzuliko duela iragarri



EPRoM memoria-mikrotxip baten zirkuitu integratua. Zirkuitu konplexu horien ekoizteko ur kantitate erraldoiak behar dira.

du. TSMCk dioenez, Taiwanen erabiltzen duen uraren %86 birziklatua zuen 2020an, baina datu esanguratsua izanik ere, ez zen nahikoa izan 2021ko arazoak saihesteko. Gainera, azken urteotan birziklatze tasa pixka bat apaldu du – eta bitartean, 2016tik 2022ra ur erabilera %150 igo du –. Goranzko

TSMC eta Intel fabrika berriak plantatzen ari dira Arizonan, Colorado arroko ura erabiliz, bertan lehorre historikoa pairatzen ari diren bitartean



Taiwan. Bertako arroz soroen laurden bat urrik gabe gelditu ziren 2021eko lehorrean, erdieroaleen industriako ur beharrak lehenetsi zirelako.

joera hori aldatuko denik ez da aurreikusten, ez Taiwanen ez bertze herrialdeetan, eta birziklatzeko ahaleginak indargabetu ditzake.

Elektrifikazio kontsumoa murriztu ezean, talkak ugarituko dira baliabideen erabileran. Burujabetza hitzaren bi esanahien arteko talka ere gertatuko da: militarri estrategikoak diren arloetan estatuen arteko lehia ala planetako guzien bizi baldintzak bermatzeko ahalmena, hain zuzen, gerrak saihesteko? ●

Eva García Magriñá

FRAISOROKO ESPOSITOEN MUNDUA



JABETU NAIZ FRAISOROKO ESPAZIO ILUN ETA ESTIGMATIZATUA ARGITARA EMATEAK GARRANTZIA DUELA



Zizurkilen gora da Fraisoro, espositoen etxea. Han da oraindik haur abandonatuak jasotzen zituzten eraikina. Ehun urte baino gehiago dira inklusa eraiki zutenetik, eta hamarkada ere badarama gaia lantzen Eva M. García Magriñá ikerlariak. Iraganera bidaia egin dugu, atzo gaur dela jakinik.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

“Botaten diran umeen edo esposituben etxia” dakar Bizkaiko Batzar Nagusietako testu batek, 1864an. Zer ziren haur espositoak?

Hitza latinetik dator, expositus hitzetik, ex + positus, eta “etxetik ateratakoa” esan nahiko luke. Hitz horixe erabili izan zen garai batean, gurasoek mantendu ezin zituzten haurrak, edo desiratzen ez zituztenak, etxetik kanpora uzteko. Haur horiek leku publikoetan uzten ohi ziren, baldin eta haurrak –famiatit kanpora ere–, bizitzea nahi bazuten. Bestela, esate baterako, basoan-edo abandonatzen zuten haurra, bizirik agertu ez zedin. Ohiturak ekarri zuen esposito izena deitura bihurtzea zirkunstantzia horietan jaio-takoentzat. Hala ere, Espainiako Karlos V.ak gaitzesgarri jo zuen deitura hori, eta aldatzeko aukera eman zien abizen hori zeramatenei. Horren ordez, agertutako

lekuen izena hartzen hasi ziren espositoak: gaztelaniaz, de la Cruz, del Bosque, de la Mata... Gero, berriz, haurra utzi zuten tornuaren herriko izena jarri izan zieten: Tolosa, San Sebastián, Azpeitia...

Tornua?

Bai, gailu birakor bat, erditik moztutako zilindro bat. Espositoen etxean edo komentuetako fatxada edo kanpoko paretan instalatzen zuten, kanpoaldea eta barrua komunikatzeko. Klausurako moja-etxeetako tornua bezalakoa zen, eta jendeak haurrak modu anonimoan uzteko erabiltzen zuten. Tornuan uztean, haurraren pisuak kanpai bat aktibatzen zuten, barrukoei jakinaraziz haur bat utzia zutela. Horrela egiten zuten Fraisoron. Esan behar da garai batean Gipuzkoan ez zela inklusarik izan, haur abandonatuak Iruñera eta Calahorrara eramaten

zituztela, eta Calahorratik, berriz, Zaragozako Graziaren Ama Birjinaren Ospitalera. Elizbarrutien arteko gorabehera zen. Haur jaio berria asto baten gainean, edo zaldiz edo gurdiz, hemendik hara ibiltzeak haietako askoren heriotza zekarren.

Liburuan diozunez, 1844an ezarri ziren tornuak Gipuzkoan...

Aurretik ere baziren tornuak, Tolosan, Donostian, Azkoitian eta Azpeitian –Iruñeko elizbarrutiko herriak–, eta Arrasaten, Calahorrako elizbarrutiko herrian. 1844an, berriz, Espositoen Arautegia onartu zuen Espainiako erregeak eta tornuak barruti judizialen arabera eratu ziren: Donostian, Tolosan, Azpeitian eta Bergaran jarri zituzten, eta Arrasatekoa eta Azkoitikoak kendu. Herri horietako tornuetan zentralizatu zen haur aban-



Eva María García Magriñá

DONOSTIA, 1966



2008an, Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren ikerketa-beka jaso eta *Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak* lana argitaratu zuen, hau da, Gipuzkoako espositoen sehaska-etxearen XX. mendeko historia. Gaia bazterrean utzi gabe, lana aitzinatu, sakondu eta urrunago eraman zuen duela hiru urte, *Mujeres de barro, infancias de cristal* (Lokatzezko emakumeak, kristalezko emakumeak). *Fraisoro 1903-1985* liburuan, errealitate isilgordea argira ekarriz, estigmari aurre eginez.

donatuak biltzea. Tornuekin batera, probintziako inudeen edoskitze sarea ezarri zen, haurrak edoskiko zirela bermatzeko. Haur haiek bizirauteko, ezinbestekoa zen edoskitzea. Baina jatorri ezezaguneko haurrak edoskitzeak izutu egiten zituen inude asko, izan zitezkeen gaixotasunen kutsaduragatik, eta, beraz, inudeek nahiago zuten familia oneko haurrak edoski. Espositoak edoskitzea jarduera ordaindua zen, ordea, eta premia gorrian zeuden emakumeek –giro marjinalakoak, gehienak–, onartu egiten zuten egiteko hori. Ondorioa da haurren zaintzaren emaitza kaskarra zela.

Hurrena, hala ere, Fraisoro eraiki zuten. Zerk eraginda?

Haur abandonatuen zaintzaren emaitza kaskar horrexek eraginda. Haur haien artean hilkortasun tasa oso handia zen, %80koa ere bai Espainian. 1791n, Elgoibarren egin zen Probintziako Batzarrean espositoentzat inkulsa bat eraikitzea proposatu zuten, baina Aldundiak nahiko dirurik ez, eta proiektua behin eta berriz atzeratu zuten. Aurrezki Kutxa Probintziala sortu eta gutxira askatu zen korapiloa, Kutxaren gizarte ekintzaren bidez. Lehenengo, Zizurkilen, Fraisoro baserri eskola sortu zuten, baserriarren semeentzat, eta, hurrena, Fraisoroko sehaska-etxea finantzatzea erabaki zuten. Sehaska-etxea baserri eskolako paraje berean eraikitzeak bazuen bere garrantzia: jabetzan nahikoa lur izateaz gainera, baserri eskolako ekoizpenak sehaska-etxeko bizilagunak esnez eta elikagaiz hornitzeko aukera paregabea ematen zuelako. Gainera, tren geltokitik gertu xamar zegoen paraje diskretua zen.

Noizkoa dugu Fraisoroko etxea?

1903an inauguratu zuten, Zizurkilen, eta, hasieran, haren zeregina zen leku publikoetan abandonatutako haurrei eta probintziako tornuetan utzitakoei babesa eta arreta medikua ematea. 1913tik aurrera, berriz, haurdunaldia ezkutatu nahi zuten emakume ezkongabeak ere hartu zituen. Horrela, erditze sanitario anonimoa, segurua eta doakoa eskaintzen zieten emakume haiei Fraisoron eta, gainera, semea edo alaba, berme jakin batzuekin, bertan uzteko aukera. Aldundiak kudeatzen zuen emakume haurdunekin eta haurrekin zerikusia zuen guztia, hau da,

sarrera eta irteera prozesuak, prohi-jamenduak, adopzioak, eta beste. Aldiz, arlo domestikoari dagokionez, Karitatearen Alaben esku zegoen Fraisororen antolakuntza.

Zergatik abandonatzen zituzten ama haiek haurrak?

Pobrezia eta desohorea ziren arrazoi nagusiak. Haurra ezkontzaz kanpo izatea desohore handia zen, ez bakarrik haurdunarentzat baizik eta bere familia osoarentzat. Familiak, maiz, ama presionatu egiten zuen haurra instituzioan uztera, etxera itzuli nahi bazuen. Fraisoro, soilik erregistro zibilean “guraso ezezagunen” gisa inskribatutako seme-alaben aterpea bazen ere, familia pobreen haurrak ere jaso zituen, identifikaziorik gabe han utzitakoak, espositoak balira bezala, administrazioak haien elikaduraren ardura hartzeko.

Jasotako testigantzak ez dira kamutsak...

Emakume baten bizitzan ama ezkongabe izateak zekarren estigma soziala gutxitu egiten zen Fraisoron, nolabait. Batek, adibidez: “Herri txiki batetik Fraisorora joan nintzen, esamesetatik ihes egin nahi nuelako. Han, emakume gehienak egoera berean ginela ikusita, lasaitu egin nintzen”. Edo beste- ren batek: “Jendeak uste du hura leku marjinala zela, baina ondo pasatzen genuen, ondo jaten genuen. Oso bizi- modu arrunta genuen. Leku guztietan bezala, gure artean, denetik zegoen, mojen artean ere bai; gehienak, oso goxoak, baina batzuk zakar samarrak ere bai”.

Fraisoron bizi izandako emakumeek esandakoak dira...

Bai, era horretako komentarioak egiten dituzte. Ama Nagusiak gutun batean eskatzen dio aldundiari portara arazoak dituen ama adingabe bat jasotzeko agintzeko haren gurasoei: “Hau ez da, inolaz ere, zentzategi bat, hau ama ezkongabeen etxea da. [Neska hori] Adingabea da eta zaintza eta heziketa gurasoen ardura dira”. Fraisoroko sehaska-etxea, eta “emakume desbideratuak” hartzen zituzten beste egoitza batzuk –gogorragoak eta zorrotzagoak–, ulertzeko, iraganera jo behar dugu, baina ez oso aspaldira ere, gugandik gertu samar dagoen iraganera baizik.



Noiz arte izan ohi zituzten haurrak Fraisoron?

Bost urte betetzen zuten arte. 1932tik aurrera, "ama ezkongabeen sorospena" izeneko diru-laguntza onartu zenetik, gero eta haur gehiagok alde egin zuten Fraisorotik beren ama biologikoarekin. Haurra adopzioan emateko erabaki irmoa zuten emakumeei dagokienez, lehen momentutik sinatzen zuten errenuntzia, edota haurra familia baten zaintzapean uzteko baimena. Beste batzuek, berriz, aukera zuten, sehaska etxean urtebetez lan egin ondoren, kanpora irteteko; emakume horiek, lana eta egoera egonkor bat lortu bitartean, haurra Fraisoron zainduta uzten zuten.

"Emakumeak" eta "amak" ari gara atzera eta aurrera, haien bizimodua Fraisoron, haurra berek hazi edo adopzioan eman... Eta haien gizonezkoak?

Gizona, libre! Beti izan da horrela! Haur abandonatuez edo adopzioan emandakoez ari garenean, badirudi ama zela egoera horren erantzule bakarra. Eta, non dago aita? Haurdunaldi haietako batzuk prostituzioaren testuinguruan izan ziren. Beste batzuk, bortxaketa eta abusuen ondorio izan ziren, eta, askotan, urritasun fisiko edo intelektuala zuten emakumeei gertatuak, familian edo lan esparruan, eta salaketa judizialik ez zen

izan. 1974ko testigantza baten arabera, bi ahizpa zeuden aitak haurdun utziak! Gerokoa da aitatasuna ikertzeko aukera onartzea. Haurdunaldi haietako gehienak, hala ere, nobioarekin izandako harremanen ondoriozkoak izan ziren.

Haurrak jasotzeko sistema guztiz egituratuta zegoen, Batzorde Probintziala eta udal batzordeak, idazkaritza bat, langileak, Karitatearen Alabak...

Gipuzkoako Aldundia emakume haiei babesa ematen saiatu zen, beste inork eman ez zien babesa, alegia. Gaurko ikuspuntutik orduko gestioa kritikatzeko modukoa izan liteke, garai batean "egokia" zena, baliteke gaur egun hala ez izatea, baina, nik, idatzietan, langile horietako batzuen borondate ona besterik ez dut antzeman.

Langile horien guztien artean, Andres Izaskun Ibaigain.

Pertsona berezia, Andres Izaskun, Espositoen Idazkaritzako langile ezohikoa iruditu zitzaidan. Lanean ari nintzela, bere oharrak agertzea-eta mugarri bat izan zen, izugarritzako balioa izan duena nire lanean. Ordurarte, espositoen espedienteetan dokumentu ofizial eta formal hutsak ditugu, baina Izaskunek besterik egin zuen, haurren espedienteetan sentsibilitate deigarria erakusten zuten An-



ANDRES IZASKUN I

"Andres Izaskun 1916an utzi zuten Fraisoron, jaio eta hiru egunera. Haurtzaroa eta gaztaroa Espositoen Batzorde Probintzialaren tutoretzapean igaro zuen, eta, gero, erakunde horretako idazkaritzako kide izatera iritsi zen. Espedienteak hautsetik eta ahanzturatik berreskuratzen hasi zen, eta agerian utzi zuen Espositoen Batzordearen tutoretzapean zeuden haurren gaineko kontrol-lan eskasa".

ANDRES IZASKUN II

"Gipuzkoa osoa zeharkatu zuen familietan barreiatuta zeuden espositoak banan-banan ezagutzeko, eta bere laguntza profesionala eta pertsonala eskaintzeko asmoz. Gaizki zaindutako haurrak topatu zituen kasuetan, Fraisorora itzuli zituen. Era berean, amen eta seme-alaben arteko topaketak erraztu zituen, emakumeak onartzen bazuen, behintzat. Espedienteak idatzita uzteak berebiziko garrantzia izan du nire lanean".

ANDRES IZASKUN III

"Andresek espedienteetan agertzen zituen sentsibilitatea eta enpatia justifikatuta zegoen. Ez zegoen bera baino egokiagorik Gipuzkoako Aldundiak zaintzen zituen haur eta gazte haien beharrak ulertzeko eta asetzeko. Ama ezkongabeekiko erakusten zuen aldeko jarrerak berriz, pentsarazi zidan ez ote zituen emakume haiek lagunduko bere ama biologikoa gogoan zuela".

Azken hitza

MORAL FALTSUA

"Aurreiritzi guztiekin hasi nintzen lan hau egiten eta, sakondu ahala ohartu nintzen ezkontzaz kanpoko haurdunaldien 'arazoa' ez zegoela horma haien artean: familian izandako bortxaketa eta abusua ziren, aitak alaba haurdunari etxera itzultzen ez uztea, senargaiak hanka egitea... Elizak zabaldu eta herriak onartutako moral faltsu batek eragindako arazoa zen".

dresen oharrak topatzen hasi nintzen, humanismo handiz idatziak. Harridura berezia sortu zidaten: dena delako haurrari buruzko iruzkinak, amarekin izandako elkarrizketaren laburpenak... eta, gehienetan, egoera eta pertsonen alde positiboa azpimarratuz, eta baita haurraren ama lokalizatzeko ahalegina eginez ere.

Ezagutu zenuen Andres Izaskun?

Ez, berehala jakin nuen urte batzuk lehenago hilda zegoela, telefono-aurkitegian begiratzen hasi, eta Donostian familia bakarra topatu nuen abizen horrekin. Deia jo, eta Andres Izaskunen familia! Oso ondo hartu ninduten. Ni, galderak prestatuta joan nintzaizen, eta, konbertsazioan ari ginela, alabak: “Bai, nire aita, bertako umea izanda...”, eta hau eta hura. Hura flasha! Uste dut hori aditu nuenean ez nuela beste hitzik egin: “Orain ulertzen dut!”, esan nion neure buruari. Andres Izaskunen humanitatea, haurraren ama bilatzeko egiten zituen proposamenak eta eskaintzen zuen laguntza, edota esposito bat hartu eta medikuarenera eramatea, eta mediku hark esandakoarekin konforme ez, eta beste batenera joatea. Hamaika holako! Historia indartsua da Andres Izaskunena.

Haur abandonatua izan Andres Izaskun bera!

Bai, espositoa zen. 1916an utzi zuten Fraisoron, jaio eta hiru egunetara. Oiarzungo familia batek jaso zuen handik gutxira, baina tuberkulosiak harrapatu zuenean, erakundera itzuli zuten. Bost urtez egon zen ospitalean, eta uste dut orduantxe landu zuela bere burua. Ikasketak eman zizkioten, Donostiako Arte eta Lanbide Eskolan, eta Iruñeko Salestarren Lanbide Eskolan. Gerra lehertu zenean, Gipuzkoako espositoak Tolosako errukietxean bildu zituzten, bera tartean, eta han ikusitakoak hunkitu egin zuen: hango gehienak analfabetoak eta biolento xamarrek ziren; horietako batzuk gerran izena eman eta desagertu egin zirela jabetzean, ahal zuena egitea erabaki zuen.

Haur abandonatuen batzordeko idazkaritzatik?

Bai, 1941ean Andres Izaskunek eskribau edota kopiazaile lanpostua lortu zuen Espositoen Batzordeko Idazkaritzan. Bere hasierako lanak agerian utzi zuen esposito askoren gaineko kontrol-eza. Ikuskatzaile izan baino lehen “bisitari” figura sortu zuten berarentzat, eta tuberkulosiak eragindako herren handi eta guzti, tren hartu eta Gipuzkoan barre-

na ibiltzen hasi zen, espositoak zeuden etxe eta baserri guztietara joaten, haur eta gazte haien berri jasotzeko. Gero, bulegoan, zegokion espedienteetan idazten zuen bisita bakoitzaren edukiaren laburpena. Aurrerago, lanez gainezka zebilela, denbora irabazteko estrategiak asmatu zituen, postarien bidez herri edo bailarako esposito helduak leku jakin batean bateratsu zitatzeko. Gainera, haietako askori, ama biologikoa ezagutzeko bidea jorratzen lagundu zien.

Gaia ez da nolanhikoa. Zer sentipen eragin dizu liburua idazteak?

Hainbat zirrara izan ditut! Lehena, Andres Izaskunen esposito izaera deskribitzeak eragin zidana. Gero, emozio gehiago etorri dira, elkarrizketatu ditudan pertsonen eragindakoak, etxea eta bihotza ireki zizkidatenean. Beraiek erakutsi didate, antzeko egoeran, errealtate bakoitza bakarra eta konplexua dela. Tarteka, oraindik, e-posta mezu hunkigarriren bat edo beste jasotzen dut. Eta jabetu naiz Fraisoroko espazio ilun eta estigmatizatua argitara emateak garrantzia duela, han bizi izan zirenentzat, eta beren ondorengoentzat. Gure imaginarioa aurreiritziz betea dago, Fraisoro ez zen zentzategia, ez zigor-lekua... ●

Elhuyar aldizkaria
jakin-minak ez baitu mugarik
.....
Harpidetu zaitez!



Deskolonizazioa eta Gobernuz Kanpoko Erakundeak

I. Mundu Gerra amaitu ostean, Afrika eta Asia aldeko herrialdeen deskolonizazio prozesua abiatu zen. Izan ere, herrialde horietako soldaduek parte hartu zuten Alemania eta beronen aliatu faxistak garaitzen eta “esker on gisa”, menpeko herrialde horiei “askatasuna” onetsi behar zitzairen. Halere, gutxitan aitortzen da ohiko sistema koloniala garestiegia bilakatzen ari zitzaiela estatu menperatzaileei eta esplotazio formula berriak asmatu behar zituztela.

Deskolonizazio prozesu horretan hainbat lider azaldu ziren, zeintzuek beraien herrialdeetako askatasun integralaren alde borrokatu baitzuten; askatasun horrek sozialismoa eta beraien natura baliabideen jabetza ere aurreikusten zituen. Errebindikazio hori zela eta, herrialde askotako liderrak Txinarekin edo Sobietar Batasunarekin lerratu ziren. Lider ezkertiar horien artean aipagarriak dira Lumumba Kongo belgikarrean –Mendebalarentzat arriskutsua zelako erail zutena–, Nkrumah Ghanan edo Nyerere Tanzanian.

Mendebaleko metropoliek, Britainia Handiak zein Frantziako Estatuak, beraien kolonia ohiak mendean gordetze aldera, dirulaguntza ugari ematen zizkieten, batik batik inportatzeko edo jaioterriko elitea erosteko. Haatik, “dirulaguntza” horiek ez zuten garapen helbururik bete.

Beste urrats bat eman zen Washingtongo Kontsentsua onetsi zenean 1980ko hamarkadan. Politika neoliberalera

Gutxitan aitortzen da ohiko sistema koloniala garestiegia bilakatzen ari zitzaiela estatu menperatzaileei eta esplotazio formula berriak asmatu behar zituztela

la indartzeko helburua zeukan akordio horrek, eta herrialde orori hau eskatzen zitzaion, nazioarteko diru publikoa jaso nahi bazuen: aurrekontu publikoak orekatuta izan behar zituela, enpresa publikoak (meategiak, besteak beste) pribatizatuta, eta abar. Garai hartako *The Economist* bezalako aldizkari neoliberalak aitortzen zigun eskakizun horiek betez gero, herrialde atzeratuak edo garapen bidean zeudenak betirako irtengo zirela azpigarapenetik.

Jasan duten mespretxua dela eta aspertuta, batik batik afrikarrak, babes bila dabilta Txinan ez bada Errusian, nahiz horiek ere interesak izan.

Garapen ezaren ondorioz, indarra hartu zuten Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GGKE). 1980ko hamarkadan hasi ziren eratzen eta hurrengo hamarkadetan egonkortu eta protagonismo esanguratsua hartu zuten.



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

GGKEen bilakaeran bi arazo aipatuko ditut. Lehena, herrialde hartzailean erakunde bikia sortu behar dela garapen proiektua gauzatzeko; kasu askotan erakunde bikiko langileek bertako ministroek baino soldata garaia goak dituzte, eta ondorioz, lanpostuak erdiesteko gatazkak egoten dira. Bigarren arazoa GGKEen egituretan sortzen da; izan ere, erakunde horietako agintariak, askotan, enpresa multinazionalen praktika kopiatzen dituzte: soldata oparoak, luxuzko lan-bidaia, edo eratu dituzten diru funtsekin inbertsio espekulatiboak egitea.

Ikusita zer nolako emaitza kaskarrak lortu dituzten herrialde txiro horien garapen ekonomikoan eta sozialean, hainbat GKE sortu dira hasi direnak dirua banatzen norbanakoen artean, inbertsio proiektuetan egikaritu ordez. Politika berri horretan aitzindari dira Silicon Valleyko enpresa erraldoien GKEak. Dirutzak inbertsioetara zuzendu ordez, pertsona behartsuen poltsikoetara, kontsumora, bideratzen dira, eta bake soziala egonkortu.

Etorkizunari begira, garapen ekonomiko eta soziala bideratzeko indar endogenoak sortu behar dituzte, batik batik kooperatibak. Eginkizun horretan, aipagarria da Euskal Fondoak daraman bidea, 120 udalek finantzatua. Hainbat udalerritan proiektuak burutzen ari da, izan eskolak, bideak edo bertako ekoizpenak, baita formakuntza kooperatiboa, solidarioa eta tekniko ere. ●

Aire Jauntxoan morroi



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA

Bankuek eta enpresa handiek beren eraginaren itzala zabaldu dute giza jarduera ezagun eta imajinagarri orotan. Parlamentuak eta ordezkarien ganberak alboratuta, botere korporatiboak mundua gobernatzen du, bere aldeko legeak egin eta gatazkak ebatziko dituzten auzitegiak ezarzen ditu, beren neurriara egindako araudia aplikatuta. *Lex mercatoria* berria, Juan Hernández Zubizarretak eta beste batzuk ikertu dutena.

Hezkuntza-sistemetan, esaterako, muineraino sartu dira. Teorian, hezkuntza hobetuko luketen metodologia eta sistema ustez berritzaileak sartu nahi zituzten. Egia esan, beren merkatu-interesen arabera hezkuntza eraldatzea lortu nahi dute eta lortzen ari dira; ez dute horrela esaten, jakina, emozioen eta zoriontasunaren hizkuntza atsegina erabiltzen dute.

Ikasle orok ordenagailu bana dauka eta ikasgela guztietan Internetera konektatutako pantaila gisa funtzionatzen duen arbel digitala dago. Konexioa eta abar baldin badabilta, oso erraza da ikustea, demagun, K.a. V. mendeko kolonia feniziarren mapa; zerbait txalogarria, ehunka gizaldiak amestu ere ezin zutena, guk eskura dugu. Baina ez dohainik.

Komunikazio teknologiak egituratu dira multinazional handien boterearen eta euren publizitatearen inguruan. Babestu behar gintuzten erakunde publikoek ez dute halakorik egin; aitzitik, gure datuak eta gure bizitzak korporazioen eskuetan jarri dituzte. Gelako pantailan feniziar kolonien mapa ikustearren prezioa publizitate tonak irenstea da. Normaltasun osoz, ikasgela barruan,



PAULA ESTEVEZ

irakaslea bertan dela. Kotxeak, kirol-zapatilak, bankuak, aseguruak, jogurtak, edozer.

Irakasle izan nuen Javier Echeverría duela asko ohartarazi zuen zer nolako mundua iristen ari zitzagun. Argi ikusi zuen "hirugarren ingurunea" deitu zuena ezartzen ari zela, alegia, giza habitat digital eta telematikoa, ordura arte ezagutzen genituenen oso bestelakoa. Lehen giza ingurunea natura izan zen; bigarrena, *polisa*, hiri-espazioa. Orain (orduan) *terra ignota* baten ateetan aurkitzen ginen, es-

ploratu behar zena, baina eraiki eta antolatu ere bai. Ohartu zen gauzak *neofeudala* dei zitezkeen era batean ari zirela egituratzen: *aire-jaun* botereitsuak (sortzen ari ziren teknologia eta komunikazioen sektoreko enpresa handietako jabeak) dagoeneko hasiak ziren gainerakoei basailutza eta morrontza eskatzen. Filosofo nafarrak honako galdera hau planteatu zuen: posible al da hirugarren ingurunea hiri demokratiko bihurtzea? Posible, desiragarri eta beharrezkoa zen. *Telepolis* demokratizatzekeo proposamen batzuk egin zituen eta gogoratu zuen hiri global digitalaz gain, tokiko esparruak ere ezar zitezkeela hirugarren ingurune horretan.

Argitaletxe pribatuek eta erakunde publikoek bere lana aitortu, txalotu eta saritu zuten. Baina inork ez zuen ezer egin prozesu antideokratiko horiek gelditzeko. Echeverría gai honi buruzko lehen gogoetak argitaratu zituenetik hiru hamarkada igaro dira, denbora nahikoa finantza-kapitalismoak eta berearekin batera doan ideologia ultra-liberalak hiru inguruneak (natura, hiria eta hodeia) erabat suntsitzeko. Hirugarren ingurunean lortu dugun

guztia Wikipedian zertzen den lankidetzatza da, gutxi gehiago. Gainerakoa oihan latza eta etsigarria da. Eta hobe dugu ez jakitea zer onartzen dugun "onartzen dut" klikatzen dugunean (hamaika aldiz egunean).

Orain, Echeverría eta garaiko beste irakasle aparten ikerketek bestelako norabideak hartu dituzte, berrikuntzaz eta ezagutzaren ekonomiaz hitz egiten dute, banku- eta enpresa-fundazioetako hitzaldi eta elkarrizketa bikainetan, online eskuragarri, klasean pantaila digitaletan ikusteko proposak. ●



MIKEL OTERO
LEGBILTZARKIDEA

Beldurrik ez?

2024ko egutegiari lehen orriak erortzen ari zaizkion honetan, gure arazo ekologikoen erpin nagusienetarikoa den larrialdi klimatikoari begiratuz gero, ezin esan amaitu berri dugun urtea itxaropentsua izan denik. Errekorrez betetakoa, dagoeneko ez da erraza adierazle bakan bat azpimarratzea, ia denak baitaude hizki larri gorritan. Klimaz haratago, planetaren bederatzi muga ekologikoetatik seitan planetaren karga gaitasunaren gaindi gabiltza, eko-antsietatik eko-axolagabetasunera egunero hainbat salto eginez.

Urte luzez ohartarazi gaituzte zientzialariek sistema naturalek eta sozioekonomikoez kolapsoa izan dezaketela, bero jasanezina, muturreko fenomeno meteorologiko ugariak, elikagaien eta ur gezaren eskasia, itsas mailaren igoera, gaixotasun berri gehiago eta gizarte-ondoeza eta gatazka geopolitikoak areagotuko dituen mundu honetan.

Baina, aurtan, 15.000 zientzialariren lanak barnebiltzen dituen urteroko *The State of the Climate 2023* (Klimaren egoera 2023) txostenaren idazleek pausatxo bat gehiago eman dute eta honako hau adierazi: “Denbora amaitu da. Zientzialari garen aldetik, gero eta gehiago eskatzen zaigu jendeari egia esateko termino simple eta zuzenetan, aurre egiten diegun krisiei buruz. Egia esan, *shock* egoeran gaude 2023ko muturreko feno-

meno meteorologikoen tamainarekin. Sartu garen dimentsio ezezagunaren beldur gara”.

Sartu garen dimentsio ezezagunaren beldur dira zientzialariak. Eta gu? Non kokatzen gara euskaldunak gure eta datozen belaunaldien bizi baldintzak erabat baldintzatuko dituen gai honetan? Azken inkestei eta txostenei erreparatu eta gero, bi datu ekarriko ditut gogora. Antza, populazioaren %40 inguruk uste du hamar urte barru larrialdi klimatikoa hiru arazo nagusien artean egongo dela. Esan daiteke euskal jendarteak etorkizuneko krisi ekologikoari buruzko kezka bada-rabilela buruan, baina gaurko arazoez galdetuz gero, kezka hori hamahirugarren postura jaisten da. Hau da, badakigu hamar urte barru arazo nagusia izango dela, baina gaur gaurkoz beste hamaika arazo lehenesten ditugu.

Eta horrela, urgentziek ez digute uzten etorkizuneko arazo nagusiei aurre hartzen, irtenbideak beti biharko uzten ditugu. Jendartearen izaerari leporatu diezaiokegu, noski, baina bi kontutxo gogoraraziz amaituko dut. Ingurumen gehiegikerien bestondoa ez da hamar urte barru azaleratuko, dagoeneko azaleratzen ari delako. Bestalde, gutxienez hamar urteko esfortzu bateratu eta jarraitua behar dugu hamar urte barruko eszenatoki latzenak egikaritu ez daitezen. Beldurrik ez? ●



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Oihu ozenagoa!

Esatzen dute irudi ikaragarrien gehiegizko esposizioak nolabait izugarrikeriaren aurkako txerto moduan funtzionatzen duela, ohitu egiten garena, eta, finean, azkenean ohituragatik ez gaituztela inpresionatzen. Lazturaren hutsaltzea omen da fenomenoak. Bada, ni ez naiz normala. Palestinatik egunero datozen irudiek kolpatzen bainaute behin eta berriro, eta, daitort, une zehatz batzuetan ez diet ezta begiratu nahi ere, minak ez-tarrian eragiten didan negargura isilak itoko nauen beldur. Eta aldi berean, genozidioa geldiarazteko ezintasunak eta europar isiltasun konplizearen (nahi ez arren) parte izatearen erru-sentimen-

duak esaten didate sikiera hori zor die-dala hildakoei, zaurituei, etxetik botatako milaka palestinarreri: irudiak jendarte osoari helarazten lagundu.

Eta ez da soilik Palestinan. Mundu pribilegiatuaren aldean bizitzea egokitu zaigunon ongizatea askotan beste pertsona eta herrien zapalkuntzan eta odoletan sustraituta dago. Orain, Europar Batasunak onartu berri du Migrazio Ituna, gure indiferentziak babesturiko egoera lazgarri horietatik ihes egiten duten pertsonen ateak are gehiago ixteko. Eta nik ez dut ulertzen nola ez ditugun zumardiak betetzen, gero eta ozenagoa behar den oihu bateratu batean: “Ez nire izenean”. ●

Ihesak



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

EAEn ez dakit. Nafarroan bat etorri ohi dira izena eta izana. Erran nahi baita, grazia euskarazkoa duen gaztearekin euskaraz egin ahal izateko zenbaki franko ditugu estres linguistikoa- ren loterian. Gisa berean, euskal izena duen heldua gutienez ere euskaltzale gertatzeko aukerak biderkatzen dizkigu zoriak. Erlazioa ez da, dena dela, matematikoa.

Xuriñe Peñas Eguesibarko alkatea aski famatu da azken asteetan bere udalaren osoko bilkura batean egindako adierazpenengatik. Zehatz-mehatz, euskarazko ekitaldiak erdaldunendako “diskriminatzailetzat” jo ditu emakume horrek, Iruñea ondoko udalerrri horretako zinegotzi guztien aitzinean. Minutu bat lehenago, euskaraz badakiela adierazia zuen politikariak.

Ez dut Peñas andrea ezagutzen. Hortaz, baieztapen hori ezeztatzeke daturik ez dut. Nolanahi ere, ez dago hain garbi horrek –euskaraz badakielakoak– zehazki zer erran nahi duen. Ezagutza delakoaren barnean zein kasuistika zabalagoen –kasik hutsetik abantzu infinituraino– kostata barneratu du gure soziolinguistikak. Jakitate kontu lausoak alde batera utzirik, adierazgarriagoa li-

Isil-misilka baizik ez ditugu aipatzen, baina ikasketak euskara gorrotatzen bukatzen dituzten ikasleen kasuak ez dira hain bakanak

tzaiguke Xuriñe Peñasek euskararekin zer harreman (izan) duen argitzea. Asmarena sobera bihurrikatu gabe irudika dezakegu aita-ama duela lau hamar-kada nola edo hala euskaltzale batzuei zor diela izena, baita, imajinatzen segituta, euskarari loturiko irakaskuntza ere. D ereduak noraino euskaldundu zuen susmatu baizik ez dugu egiten ahal; halaber, noraino euskaltzaletu zuen. Isil-misilka baizik ez ditugu aipatzen, baina ikasketak euskara gorrotatzen bukatzen dituzten ikasleen kasuak ez dira hain ba-

kanak, ez Foru Komunitatean ezta Foru Komunitatetik kanpo ere, eta Xuriñerenean hala izan ez balitz ere, milaka dira Euskal Herri osoan euskararen azken igurtzia azken eskola egunarekin jasotzen duten haurrak. Hortik goitikoak aurreikusgarriak dira: lagunarte erdaldun eta erdaltzalea euskararik gabeko inguru profesionallean. Nahi baino ohikoago-ko istorioa.

Ez ditugu denak gureganatzen, ezta gureganatzen ditugun guztiak atxikitzen ere. *Berria* egunkariak azken inkesta soziolinguistikoa emaitzak aztertu berri ditu lurraldez lurralde. Nafarroari dagokionez, datu batek atentzioa eman zion kazetariari: gazteak adin talderik euskaldunena izanda, euskararekiko atxikimendu tikiena duena ere bada. Zehatz-mehatz, 16-24 urte artekoen multzoan, %28k egiten dute ongi euskaraz, baina %27,2 baizik ez daude euskara sustatzearen alde. Euskaraz patalago dabiltzanen edo batera egiten ez dutenen artean euskaltzaleren bat –bat bederen!– izanen dela uste izanik, garbiago antzematen zaio euskarak eta euskaltzaletasunak gure begi parean pairatzen dituzten ihesen tamainari.

Partida zaila dugu hemen. ●



32 €



10 €



28 €

ARGIA Azoka

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45



AMILLUBI LURRA TAUPAKA



Gipuzkoan, Urola ibaiaren meandroan, 90.000 m² lur erosiko ditu Biolurrek kolektiboan, laborari agroekologikoek lurrak izan ditzaten eta herritarrok elikagaiak.

Denon laguntza behar dugu: Babestu Amillubiko metro koadro bat lur. Informazio osoa eta ekarpena egiteko aukera:

www.amillubi.eus

Biolur
Gipuzkoa
Auzokatasun Ekologikoa Aldeko Ekartera

+ 27 eragileren babesarekin

**LURRA
HERRIARI
DEIKA**

FRANKISMOKO BUNKERRAK

Hormigoizko orbainak Pirinioetako mugan

1936ko Gerra amaitzear zela, Franco diktadoreak Pirinioetan milaka bunker eraikitzea agindu zuen. Mendian horiek ikusten aspaldi ohituak gaude, baina ez genekien defentsarako lerro erraldoi bat osatzen zutela, eta azken urteetan berreskuratzeko ekimenak jarri dira abian. Izan ere, hormigoizko egitura horiek ez dira ondare arkeologiko hutsak, mugako herrietan sozialki eta ekonomikoki frankismoak eragindako errepresioaren memoriarako tokiak ere badira.

 URKO APAOLAZA AVILA

Duela 80 urte, 1944an, Pirinioak zeharkatzea ezinezkoa bihurtuko zuen defentsarako lerro sendo eta behin betikoa sortu nahi izan zuten militar frankistek. Horretarako, mendikatearen 500 kilometrotan barrena ia 10.000 bunker eta gotorleku eraikitze-ko proiektua diseinatu zuten. Nahiz eta azkenean ez zituzten erdiak ere egin –Nafarroan eta Gipuzkoan, hasiera batean aurreikusitako 2.884 bunkerretatik 1.836 amaitu zituzten, eta Katalunian 5.800 bunkerretatik 2.884–, obra faraoniko hark orbain itzela utzi zuen mugako herrietan eta gizartean, milaka

preso eta soldadu aritu baitziren lanean baldintza penagarritan.

P lerroa izena eman izan zaio batzuetan defentsa-sistema horri –seguruenik hizkia Pirinio hitzetik datorkio–, nahiz eta ofizialki sekula ez zitzaion horrela deitu. Bi fase izan zituen: lehenengoan, 1939 eta 1940 urte inguruan, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat toki estrategiko gotortu zituzten José Vallespín koronelaren agindupean; bigarren fasea 1944tik 1950eko hamarkada erdialdera arte luzatu zen, eta esan bezala, Pirinio osora zabaldu zen, *Organización Defensiva del Pirineo* (Pirinioetako Defentsa Antolamendua) goiburupean.

MUGA PSIKOLOGIKO BAT

Gezurra badirudi ere, nahiz eta milaka egitura militar izan, 1990eko hamarkada amaiera arte apenas ezagutzen zen horiei buruzko ezer, eta gaur egun ere herritarrek harriduraz begiratzen dituzte mendiko txangoetan ezustean aurkitzen dituztenean. Historialari askoren arabera, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan eta autarkiaren aroan Francoren erregimenak benetako psikosia bizi izan zuen “kanpoko” erasoan aurrean, eta bunkerren helburua tropen inbasioa eragozteko zen, hasieran Frantziako errepublikako tropena, gero naziana, eta azkenik aliatuena.



NAFARROAKO GOBERNUA



1944ko abuztuaren 23an Antonio Barroso brigadierrak bunkerren defentsa sistema sortzeko agindua sinatu zuen, eta bi egun geroago aliatuek Paris askatu zuten. Ordurako milaka maki errepublikar antolaketa betean ziren Pirinioetatik Espainia frankistara sartzeko, Jesús Monzón PCEko buruzagi iruindarrak koordinatuta. 1944ko urrian jo zuten erasoaldia, nagusiki Val D'Aranetik, baina baita Nafarroako hainbat tokitatik ere. Operazioa erabateko porrota izan zen.

Frankistek ez zuten ezer asmatu bunker horiek. Garai hartako giro belizistan halako lerroek garrantzi handia zeukaten: hamarkada bat lehenago

Frantzian *Maginot* lerroa eraiki zuten Alemania eta Italiako mugatik gertu; Sobietar Batasunak *Stalin* lerroa eraman zuten Baltikotik Itsaso Beltzeraino; eta Hitlerren Alemaniak *Atlantikoko harresia* sortu zuen milaka kilometrotan barrena. Egiaz, Pirinioetako gotorlekuen proiektuan, naziek kostalderako erabilitako metodologia bera erabili besterik ez zuten egin frankistek: metrailadorentzako habiak, lurrazpiko pasabideak, artilleriarentzako puntuak eta beste hainbat eraikuntza sortu zituzten; baina naziek ez bezala, lerro jarraitu batean egin beharrean "erresistentzia gunè" edo multzotan antolatu zituzten.

Obra ikaragarri hori ezin da ikuspegi militar hutsetik soilik gogoratu –besteak beste, segituan ikusi zelako erabat antzua eta alferrikakoa zela-. 1936ko militar kolpistek lehen momentutik izan zuten garbi gerraren ondoren "Espainia berria" eraikiko zutela, heriotza, zigorra eta doktrinamenduaren bidez. Izan ere, frankismoak etsai nagusiena barruan zuen, eta hura jazartzeko modu ezin efikazagoa zen jendea aitzurrak eta palak hartuta akitu arte lan eginaraztea. Horregatik, muga geografiko bat ez ezik, muga psikologikoa ere eraiki zuten defentsa-sistema horrekin, osagai ideologiko nabarmena zuena Europa faxista hartan.

“BIZIRIK BAINO, KASIK HILDA ZEUDEN”

Pirinioetako gotorlekuen lehen fasea erakitzeko, batez ere presoek eskulana erabili zuten, Langile Batailoietan eta Langileen Zigor Batailoietan antolatuta; disidente politikoak eta erregimenak "arriskutsutzat" ikusten zituenak eramaten zituzten halakoetara. Uste da 1939. eta 1942. urteen artean nafar Pirinioetan 20.000 lagun aritu zirela halako esklabo lanak egiten, oso baldintza txarretan, etxola miserabletan lotan, gosez akabatzen eta zigorren beldur.

Felix Padín lider anarkosindikalista ezagunak bere memorieta ezin hobekiago deskribatu zuen egoera: “Denboraldi batez oinutsik joan behar izan nintzen lanera, oinak zatarretan bilduta. Beste behin egur bila bidali gintuzten, elurra gerriraino genuela eta zazpi egunez inkomunikatuta egon ginen. Bi kidek ihes egin zuten, txabola batean ezkutatu ziren, baina artzain kabroi batek guardiei bidea erakutsi eta han bertan hil zituzten. Gero gorpuak herrira ekarri zituzten eta haien aurrean formazioan jarri gintuzten, nola lurperatzen zituzten ikusteko”.

Defentsa sistema ez zen bunkerretara mugatzen, haietara iristeko pistak eta ibarren arteko bideak ere egin behar izan zituzten, lur mugimendu handiekin. Urte horietan ireki ziren, besteak beste, Lesaka-Oiartzun, Irurita-Eugi, Bidankoze-Igari edo Lezo-Jaizkibel errepideak –azkeneko honetan lanean aritutako *trabajadoreen* berri eman genizuen ARGIAren 2.626 zenbakian-. Hain zuzen, Bi-



BORTAZKO LANAK DIKTADURA FRANKISTAN / LUIS ORTIZ

Lehen fasean Langileen Zigor Batailoietako presoek egin zituzten bunkerrak, bigarrengoan soldadutzako errekrutek; denek baldintza penagarritan. Irudian, batailoia Oiartzunen, 1938an.

1943an Pirinioetatik Ebrorainoko lurraldea "gune militar" izendatu zuen erregimenak eta horrek kontrol soziala areagotu zuen


dankozeko errepidea egiten eduki zuten Padín, eta Igariko gaineko barrakoieta sartu zuten lotara, andaluziar preso ba-

tzuekin batera: “Barrakoiak nazkagarri zeuden, ikusten zen pilatuta zeuzkatela, gu baino askoz gose gehiago pasatzen zuten, espiriturik gabe, bizirik baino kasik hilda zeuden”. Gaur egun barrakoieta bat ikus daiteke berreginda toki hartan eta urtero omenaldia antolatzen du Memoriaren Bideak elkarteak.

Bigarren fasean, berriz, soldadutza egiten ari ziren gazteak erabili zituzten, 1940, 1941 eta 1942. urteetako errekrutak. Normalean bi urteko soldadutza zen, baina gerraoste gogor hartan hiru urtez eduki zituzten, ez “formazioa” jasotzen, doan lan egiten baizik. Hala, baldintzak

MAPA BAT ON-LINE

Sarean paratutako mapa batean Pirinioetan dauden Frankismoko bunker guztien kokapena jarri dute kontsultagai, katalanez, euskaraz, frantsez eta gaztelaniaz egindako proiektu batean: www.lineap.spiki.org webgunean. Zientoka bunker dira, euren egoeraren edo informazioaren arabera ikur desberdinekin markatuta. Berdez, ziur non dauden badakigun bunkerren kokapena, eta horiz zalantzazkoak direnena. Euskal Herrian, batez ere Jaizkibel eta Aiako Harrien artean, Baztanen eta Kintoa eta Orreaga artean (irudi txikian) daude halako gotorlekuak.




Hamarkada askotako "sekretua"

Zeukan izaera militarragatik, Pirinioetako Defentsa Antolamendua –seguruenik Espainiako Estatuko XX. mendeko obra publiko handienetakoa–, “sekretua” izan zen hamarkada luzez, nahiz eta milaka preso eta soldaduren joan-etorriek oso agerian utzi. Euskal Herrian azkeneko bunkerrak 1958an eraiki zituzten, eta dirudienez momentu horretatik aurrera lerroa egiteari utzi zioten.

1955ean Espainia frankista autarkiatik atera eta NBE-n onartu zuten, “kanpoko” etsaiaren mehatxurik ez omen zegoen jadanik. Hori dio kontaktuzun ofizialak. Baina egiaz, azpiegitura militar guztiz antzua zelako utzi zuten bertan behera, “karlisten lubaki bat, baina zatarki egin” zelako, komandante batek Francori aitortu bezala. Hala ere, Espainiako armadak gotorlekuak gainbegiratzen jarraitu zuen

1960ko hamarkadan, eta soilik 1986an –Espainia NATOra sartu zenean– abandonatu zituzten guztiz.

Alimaleko obra izanagatik ere, haren berri apenas jaso du historiografiak. 1990eko hamarkada amaieran publikatu ziren lehen ikerketak, baina orain gutxi arte ezin izan zaio seriotasunez heldu, besteak beste, 2018. urtera arte defentsa-lerroaren inguruko dokumentazioa sekretu bezala klasifikaturik egon delako artxibo militarretan. Urte hartan Espainiako Defentsa Ministerioak dekretu baten bidez baliogabe utzi zuen 1968ko Sekretu Ofizialen legea kasu horretarako. Adituek diotenez, Ávilan gordezten diren funtsetan sekulako dokumentazio pila aurkitu daiteke, oraindik ikertu gabe dagoena. Goiko planoak handik hartuak dira: batak Erratzuko defentsa-lerroa irudikatzen du eta besteak Ibañetakoa.



AVILAKO ARTXIBO MILITAR OROKORRA

ez ziren presoan batailoietakoak baino askoz hobeak. Gaia sakonean ikertu duten Gabinete Trama enpresako Carlos Zuza eta Nicolas Zuazua arkeologoen arabera, soldaduen fitxetan ikus daiteke nolako kontrol politikoa zegoen haiengan: "Lapur bezala klasifikaturik dago. Aitak ideia marxistak ditu", irakur daiteke fitxetako batean.

Zuazuak eta Zuzak ikerlana publikatu dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko *Huarte de San Juan* historia eta geografia aldizkarian, Eduardo Arteta irakaslearekin batera. Baztango zein Aurizko kasuak ikertu dituzte eta horretarako Ávilako artxibo militarrean arakatzeko aritu dira; ziurtatu dutenez, material ugari dago oraindik begiratu ere egin gabe.

"AITZAKIARIK EZ"

Egitura horien arkeologia eta funtzio punitiboak gero eta hobeto ezagutzen ari gara, baina oraindik ez dago batere garbi bunkerrak eraikitzeak sozialki eta ekonomikoki Pirinioetako bailaretan zer ondorio izan zuen. Hogei urte luzez soldaduen kopuru itzela mantendu behar izatearen zama jasan zuten bailara haietako herriek.

Udal agiritegiak iturri on bat izan daitezke tokiko errealitate hori ezagutzeko. Auritzen, esaterako, herritarren kexa ugari aurkitu dituzte ikerlariak artxiboan, errazionamendu kartilletan izandako murrizketak zirela eta. Gobernadore Zibilak 1941ean emandako agindu baten arabera, auriztarrei 150 gramotik 120 gramora jaitsi zieten ogi kopurua, lehendik ere eskasa zena: "*Se servirá, por tanto, disponer lo necesario para que (...) sin excusa alguna se suministre el pan (...) en lozas individuales del peso dicho, y el precio de 0,20 pesetas*", dio aginduak. Ikusten denez, ogi toskan salmenta zorrotz neurtzen zuten.

Jakina, egoera horretan estraperlora eta kontrabandora jotzea beste biderik ez zuen izan askok. Baina hori eragotzeko, mugitzeko aukera are gehiago murriztu zieten agintariak herritarrei eta lerro "imajinario" baten barrena ibiltzeko –Leitzatik Ledearaino zioana– baimen berezia behar izaten zuten, Auritzeko Loizu Hotelean ostatu hartzen zuen komandante militarren eskutik sinatua. "Faustino Irigaray idazkariaren etxetik telefono publikoa ere kendu zuten", diote ikerlariak NUPeko artikuluan, zegoen giro itogarriaren



NAFARROAKO GOBERNUA

Gazteak Iزابako auzolandegietan bunkerretako bat garbitzen, pasa den udan.

Hamaika ibilbide nafar Pirinioetan

1936ko Gerraren ondoren frankismoak eragindako errepresioa eta milaka presok eta soldaduk jasandako esklabotza ezagutarazteko, Nafarroako Gobernuaren Oroimen eta Bizikidetzeta Departamentuak hamaika ibilbide zehatz atondu ditu Pirinioetan barrena, *Hormigoizko Mugak* proiektuaren barruan.

Gotorlekuak eta bideak garbitu, seinalizatu eta balizatu dituzte eta informazio panelak jarri dituzte jendeak gertatutakoaren berri jakin dezan. Lesaka-Oiarzun, Irurita-Artesiaga, Igari eta Bidankozeko errepedeak, eta Bera, Legasa, Bertizarana, Muskilda, Erratzu eta Otsondoko bunkerrak aurkitu daitezke haietan.

Ibilbideak erabat irisgarri izango dira eta materialak tokiko enpresek egin dituzte. "Modu horretan erregimen frankistako manifestazio errepresibo batera hurbiltzeko aukera izango da", azaldu dute.

erakusgarri. Irigaray frankistek errepresaliatua izan zen ondasunak konfiskatzeko dekretu baten bidez.

1943an Pirinioetatik Ebroraino zioan lurralde guztia –Nafarroa eta Gipuzkoa osoak barne– "gune militar" izendatu zuen erregimenak eta horrek kontrol sozial handiagoa ekarri zuen, baina bistan denez, mugaldean kontrola muturreraino iritsi zen. Ganaduaren, automobilen eta gurdien zentsuak osatzera iritsi ziren hainbat herritan, eta alkateei uso mezulariak harrapatzeko ere eskatu zieten.

HERRI LURREN ARPILATZEA

Errepideak egiteko eta hormigoizko zein burdinazko egitura erraldoiak eraikitzeko, material kopuru izugarriak behar ziren. Kintoako eta Orreagako defentsen proiektuak, esaterako, artilleriako dozenaka batera eta ehunka hobi eta kokaleku aurreikusten zituen, 126 kilometro lubaki eta 144 kilometro hesiz inguratutako. Horretarako, 143.000 ohol, 140.000 hesola eta 8.384 tona hormigoizko behar zirela kalkulatu zuten.

Hala, dirua desbideratzeko ustelkeria nabarmena izateaz gain, ez da harriztekoa herri lurretan zeuden basoen ustiaketa izatea gatazka iturri



LINEA:SPIKI.ORG

Bunker asko galdu egin dira beste obregatik, baina beste batzuk bisitagarri jarri dituzte. Irudian, Ibañetako gainean dagoen bunkerra barrutik.

nagusietako bat, militarrek masiboki erabili baitzuten hango egurra, tokiko ekonomiarentzat funtsezkoa zena. Bidadonkongo errepidea egin baino lehen pagadiz estalita zegoen inguru guztia, baina hamar hilabete eskaseta erabat solduta geratu zen.

Eraikuntza publikoen etengabeko okupazioa izan zen militarizazio horrek ekarritako beste ondorioetako bat. Erronkariko kasuan, haurrek eskola utzi behar izan zuten, presoek batailoi oso bat sartu zutelako barruan. Armadako ofizialak aldiz, norbanakoen etxeetan hartzen zituzten apopilo eta, militarrek beren mando eta behorrenzat ukui-luak bereganatzen zituzten axola askorik gabe, herritarren ganadua kanpoan utzita. “Ez zenuen ezertan agintzen, ezta zureak ziren gauzetan ere”, gogoratzen du Igariko María Jauregik, Nafarroako Gobernuko Memoriaren Institutuak antolatutako *Hormigoizko mugak* erakusketarako.

HORMIGOIZKO MEMORIA AZALERATZEN

Erakusketa hori Euskal Herriko hamai-ka herri eta tokitan paratu dute, baita Bruselan eta Portboun (Katalunia) ere, eta gaian adituak diren hainbat ikerlaririk hartu dute parte, besteak beste Fer-

Eraikin publikoen etengabeko okupazioa izan zen militarizazio horrek ekarritako beste ondorioetako bat

nando Mendiolak edo Juan Carlos García Funesek. Ez da hori bunkerren inguruan azkenaldian izandako ekimen bakarra. Oiarzunen, Kattin Txiki elkarteak trabajadoreek gerraostean erabilitako barrakoi bat berreraiki du Arkale gotorlekuan; Otsagabian Muskildako baseliza inguruan dagoen bunkerra atondu du udalak; eta beste hainbat herritan hitzaldiak, ibilaldiak eta auzolandegiak egin dira.

Pasa den udan, Izabatik Belagua eta Belabartzera bidean dauden bunkerrak txukuntzen aritu dira 25 gazte, Nafarroako Gobernuaren *Hormigoizko mugak* programaren baitan: “Gaur egun gorantz doazen faxismoak eta posfaxismoak terrorezko politika hura legitimatu nahian baitabilta, eta gazteak protagonista bihurtu dira frankismoaren indarkeria bidegabearen memoria

aurrera ateratzeko”, azaldu zuen Ana Olo Nafarroako Oroimen eta Bizikidetzak kontseilariak auzolandegira egindako bisitan.

Auritzen ere lanean ari dira oroimena berreskuratzeko kontuetan eta Aritz Gorostiagak zuzendutako *Franco-ren bunkerrak* dokumentala egin zuten 2019an, herri hartako kasua kontatzeko. Bunker gehien eraiki zituzten gunetako bat izan zen Auritz eta Orreaga ingurua: “Orreagako pasabidea, Bidasoarekin batera lehenengo gotortu zutena izan zen; inguratze maniobra bat saihesteko egin zuten hori”, dio Carlos Zuzak. García Funesek ere hitz egiten du dokumentalean: “Ulertu behar dugu zer suposatzen zuen herritarrek hornidura falta eta zailtasunak bizi zituzten momentu batean, gerraoste betean, halako gotorleku bat lehenesteak, denborarekin inolako erabilerarik izan ez zuena”.

Eta gaur egun? Ba al du zerikusirik historia honek gaur egun Pirinioetako eskualde askotan bizi duten egoerarekin? Sarritan salatu izan den bezala, despopulazioak, isolamenduak eta zerbitzu falta itzelak erasandako lurralde horietan, pentsa liteke hainbat hamarkadatan bizi izandako kontrol militarrek eta arpilatzeak, hormigoizko orbaina ez ezik, arrasto sozial sakona utzi zuela. ●

“ ”

110 preso erdi askatasunean edo baldintzapeko askatasunean egon beharko lirateke

Mikel Mundiñano

Urtero urtarrilean egiten den legez, hilaren 13an dozenaka mila lagun bildu ziren Bilbon euskal preso politikoen eskubideen alde eta salbuespeneko espetxe politiken amaiera eskatzeko. 142 preso daude gaur egun, eta batez beste, 20 urtetik gorako espetxe zigorra bete dute eta 50-55 urteko adina dute. Mikel Mundiñano (Etxarri Aranatz, 1976) Sareko ordezkariarekin egin dugu berba presoen egoerari buruz.

 XABIER LETONA BITERI

Sakabanaketaren amaieraren ondoren salbuespenetzko legeen amaiera eskatzen da euskal preso politikoentzat. Zeintzuk dira salbuespenetzko lege horiek?

Gaur egun oraindik indarrean dago duela hogeitazero terrorismoaren aurka pentsatutako politika, eta horrek ez du zerikusirik gaur egungo egoerarekin. ETak 2011n utzi zion bere jardura armatuari eta 2018an desegin zen. Hala ere, presoek jurisdikzioa oraindik Madrildiko organoen esku dago, eta gainera, salbuespenetzko organo judizialak dira. Euskal preso askok baldintzak betetzen dituzte bigarren gradutik hirugarrenera pasatzeko, eta hirugarrenetik baldintzapeko askatasunera, baina pauso horiek

emateko trabak jartzen zaizkie. Madrildiko Auzitegi Nazionalak, azken finean, hirugarren gradua erabateko askatasun moduan hartzen du, zigorra betetzeko beste modu baten gisa hartu beharrean.

Horrez gain, beste bi salbuespen lege daude: batetik, Frantziako Estatuan betetako espetxe urteak ez kentzea hementxo espetxe zigorretik; eta bestetik, bizi arteko zigorra ahalbidetzen duena, hau da, 40 urteko espetxe zigorra bete behar izatea.

Zein da, oro har, une honetan euskal presoek buruzko errealitatea datuetan?

Euskal Preso Politikoen Kolektiboan 142 preso daude gaur egun, eta horietatik 19

baldintzapeko askatasunean. Bigarren graduan 108 daude, eta horietatik 21 100.2 artikulua erekin; azken horiek kalea ateratzen dira hainbat programa edo lan egitera. Bigarren gradu arindua da, edo bestela esanda, hirugarren gradura pasatzeko aurreko urratsa. Hirugarren graduan 23 preso daude eta horietatik hamaikak kontrol telematikoa dute.

Azken urteetan 27 preso pasatu dira hirugarren gradura, eta horietatik hamarri helegiteak jarri zaizkie eta seik kartzelara itzuli behar izan dute. Bi kasu hirugarren gradua suspenditu zaie.

Horrez gain, 45 preso baino gehiagok beteta dituzte zigorraren hiru laurdenak, eta beraz, baldintzapeko askatasunerako eskubidea dute. Eta 70 bat



OSKAR MATXAIN / FOKU

Dozenaka mila pertsona bildu ziren Bilbon presoaren eskubideen alde, irudiko Autonomia kale betean ikus daitekeen moduan.

presok zigorraren erdia baino gehiago beteta dute eta, beraz, hirugarren gradua eskura dezakete.

Preso asko 20 urtetik gora dago espetxean, itzela da hori kontuan hartuta ETaren jardura armatua 2011n bukatu zela.

Bai, batez beste, 20 urtetik gorako zigorra bete dute jada kolektiboan. Hori aintzat hartuta, logikoa litzateke espetxe zigorra erregimen itxia ez den beste batean betetzea, baina salbuespenezko politikak zigor gisa erabiltzen dira eta zigorra osorik erregimen itxian beteazten diete. Kontuan hartu behar da, gainera, batez besteko presoaren adina 50-55 urtekoa dela eta badira batzuk 70 urtetik gorakoak. Horien artean kasu

adierazgarriena Joseba Arregirena da, zeinari hiru aldiz bota dioten atzera hirugarren gradua eta espetxera bueltatu behar izan den.

Zein baldintza behar dira preso batek 3. gradua lortzeko? Nork erabakitzen du?

Nagusiki hiru dira. Batetik, presoak bete du kartzela denbora bat. Behin zigorraren erdia beteta presoak baimenak eskura ditzake eta pixkanaka hirugarren gradua lortzen du. Bestetik, espetxearen barruan portaera ona izatea. Eta azkenik, onartzea egindako mina. Horren ondorioz, espetxeetako Tratamendu Batzordeek hirugarren graduak bideratzen dituzte, eta horiek dira Auzitegi Nazionaletik helegite bidez atzera botatzen ari direnak.

Eta zein argudio erabiltzen ari dira Auzitegi Nazionaletik hirugarren gradua atzera botatzeko?

Argudio nagusia barkamenarena da, haien ustez preso bakoitza egiten ari den adierazpena ez da zintzoa. Duela urte asko bai EPPK-k, bai preso bakoitzak, egina dute gatazka honetan izan zen sufrimenduaren aitorenari buruzko adierazpena. Auzitegi Nazionalak, aldiz, barkamena eskatzea nahi du, baina haien moldean eginda.

Urtarrileko garai honetan gehiago hitz egiten da presoer buruz gizartearen, baina sasoi honetaz aparte nahiko gutxi. Ona edo txarra da hori? Segun eta nola irakurtzen den. Bere gauza positiboak eta negatiboak izan ditza-



GORKA RUBIO / FOKU

Mikel Mundiñano Saren ari da duela hamar urte elkartea sortu zenetik.

ke horrek. Askok pentsa dezake behin sakabanaketa amaituta arazoa konponduta dagoela, baina hori akats izugarria da, oraindik orain indarkeria eta sufri-mendu zikloa itxi gabe dagoelako Euskal Herrian. Bizikidetzan aurrera egiteko, giza eskubideak eta bakearen kultura bat ekarri behar dugu gure herrira, hori baita indarkeria zikloa ez errepikatze-ko benetako bermea. Mendekuaren garai-le eta galtzaile eskemaren aurrean, gatazkak sortutako ondorioak konponbi-dean jarri behar dira. ETAren indarkeria amaitzean dena bideratuko zela esaten zuten batzuek, eta orain haiek etengabe ari dira denak berdin jarrai dezan. Euskal gizarteak ziklo hori atzean utzi nahi du, eta horretarako preso-en auzia konpondu behar da, herri honetan biolen-zia jasan duten biktima guztiek merezi duten errespetuarekin batera.

Presoak kaleratzeko garai batean mobilizazioa ezinbestekoa zen. Gaur egun, orEraginkorragoa da hori presoak apurka ateratzeko?

Bi bideetatik eragin behar da. Badago diskrezioz egin beharreko lan hori, baina kaleko mobilizazioa ere beharrezkoa da. Salbuespena eta ikuspegi autoritarioa-

“ ”

Batez beste, 20 urtetik gorako zigorra bete dute jada kolektiboan. Hori aintzat hartuta, logikoa litzateke espetxe zigorra erregimen itxia ez den beste batean betetzea

ren bidez, batzuek preso-en gaia kroniko egin nahi dute, eta etengabe konfrontazio politikora eramaten dute gaia. Azken finean, guztion eskubideak errespetatu eta guztion sufri-mendua aitortuko duen agenda bat behar du herri honek.

Oraintsu jakin dugu Bateraguneko auzia ez errepikatzea proposatu duela Auzitegi Konstituzionaleko lehendakariak? Hori da, adibidez, isileko lanaren ondorio?

Nik hori ez dakit. Badakit, aldiz, euskal jendartearen gehiengoak hori nahi duela. Hor ere, herri gisa egiten den presioak asko laguntzen du, eta guk ere Etxera aldarria plazaratzen dugunean, ez dugu inongo zigorgabetasunik eskatzen, salbuespenezko neurriak bertan behera uztea baizik. Gauzak aldatu nahi baditugu, kaleko mobilizazioa funtsezkoa da.

Eusko Jaurlaritzak 2021eko irailean eskuratu zituen espetxe eskumenak. Zein balorazio egiten duzue hark euskal preso politikoekin egindako lanari buruz?

Bilakaera positiboa izan da, eta Jaurlaritzaren espetxe eskumena normaltasun parametroetan garatzen ari da euskal presoei dagokienez. Urrats garrantzitsuak egiten ari dira, baina oraindik espetxe politika arruntak indarrean jartzearen balizko emaitzetatik urrun gaude. Presoek beteta duten espetxe denbora kontuan hartuta, 110 preso erdi askatasunean edo baldintzapeko askatasunean egon beharko lirateke. Oraingoz, dena den, Eusko Jaurlaritzak ematen ditu hirugarren gradu horiek, baina gero Auzitegi Nazionaleko epaile batzuek atzera botatzen dituzte. ●



JAKOB GASCON

KUMARIEN TRADIZIOA NEPALEN

Jainkosa bilakatutako neskatoen bizitza

Kathmanduko Kumari jainkosa Durbar plazan Kumari Jatra jaialdiaren lehen egunean.

Himalaiako auzi geologikoek bigarren mailan uzten dituzte askotan Nepaleko etnologia -eta etnografiagaiak. Tontorrez gain, baina, herrialdeak baditu sinesmen eta praktika erritual ugari, baita kultura eta herri aniztasun aberatsak ere. Tradizio horien inguruko polemikarik ere ez da falta.

 NEREA MENOR

Natura eta materiaren konplexutasunek jainko-izaera dute Nepalen, eta hinduismoa budismoarekin elkartzen da maiz: apaizek zuzenduriko eskaintza erritualak; batzuetan odolez, besteetan pintura gorriz, margotutako buda irudiak; sineskeria, animalia eskaintzak... Eta Kumaria deritzona: jainkosa gorena ren lur-hartzea neska gazteetan "berraragiztatuturik".

Kumariak energia jainkotiar eta espiritualaren agerpentzat hartzen diren neskatoak dira. Taleju jainkosa hinduaren haragitze biziduna, jainkosa garrantzitsuena, ama jainkosa alegia. Durga, Bhawani, Bhagawati, Kali, Parvati edo Vajradevi ere deitua budistentzat. Kumaria neskak 2 eta 5 urte bitartean dituen aukeratzeko dute, proba fisiko eta psikologikoak gainditu behar ditu eta, hautatu ostean, hilekoa jaitsi arte (edo odol tantarik isuri arte) jainkosaren jauregian biziko da.

Kondairak dio Taleju gauero dadoetan jolasten zela Jayaprakash Malla erregearekin (XVIII. mendean), haren begirune gabeziak haserretu eta desagerrarazi zuen arte. Monarkaren damuaz ohartzean, baina, Taleju itzuli egin zen mezu bat helarazteko: neskaitila garbi eta aratz baten gorputzean berraragiztatuko zen, eta jainkosak erresuma babestearen truke, erregeak neskaren gurtza ezarriko zuen.

TRISHNA SHAKYA, KATMANDUKO KUMARIA

2017an, 3 urte besterik ez zituela, Trishna Shakya Katmanduko erret-Kumari berria bihurtu zen eta 4 urte zituenetik karguan zegoen Preeti Shakya ordezkatu zuen. Talejuren energiak Shakya klan budistako (Siddhartha Gautama, shakyamuni budaren oinordekoak) eta Newar komunitatekoa den neskato baten gorputza hartzen du. Kumari hilekoa jaistean, odolak "gorputza kutsatu" eta jainkosaren energiak

gorpuzteko erabilitako neskaren gorputza utziko du.

Indiako emakumeek idatzitako eduki feministako *Feminism in India* plataformak azaltzen duenez, Indiako hainbat jaialditan, Durga Pujan (Mendebaldeko Bengal) edota Navratri ospakizunean (herrialdearen iparraldean), esaterako, Durga jainkosa ordezkatzeko duten neskatoak aukeratzen dira. Bertakoek horiek gurtu eta monjeen zein elizkoiaren eskaintzak jasotzen dituzte. Indian, neskak behin bakarrik izaten dira gurtuak; Nepalen, aldiz, Kumariak lekua mantentzen dute hainbat urtetan.

Kumaria izateko hautagaiek baldintza batzuk bete behar dituzte. Him Lal Ghimirek, Japoniako Nazan Unibertsitateko irakasleak, peleginazio budistei buruzko doktoretza ondoko ikerketan ondorengoak jaso ditu: sekula ere gaixotu ez izana, markarik ez izatea azalean eta inoiz odol tantarik isuri ez izana. Jainkosaren 32 *lachchins* edo perfekzioak ere izan behar dituzte, esaterako: osasun bikaina, ile beltza, lisoa eta eskuinerantz kizkurtua, hortz zuriak eta tarte gabeak, mingain txikia eta umela, Banyan zuhaitzaren gorputza edota behiaren bekainak, besteak beste.

Iraganean, neskaren eta Nepaleko erregearen arteko bateragarritasuna bermatzeko, horoskopoei bat etorri beharra zeukaten. Tradizioz, Kumariak ez dira eskolara joaten: dena dakien jainkosari zerbait gehiago irakasterik ba al dago? Oso bakartuta daude, gehienetan zaintzaileekin baizik ezin dute hitz egin. Eta zorua zapaltzeko baimeunik ez dutenez, jauregitik kanpo daudenean besoetan helduta edo gurdietan igota ibiltzen dira.

Nepalen hiru Kumari daude dedikazio osoan. Malla aro historikoan (1736-1768), Katmandu, Lalitpur eta Bhaktapurreko hiru erresumetan Kumari bana zegoen. Herrialdearen bateratzearekin, Katmandukoa Kumari erreala (monarkiarik ez dagoenez, orain nazionala) bihurtu zen. Hamaika bat dira jainkosaren energia "noizbehinka" bakarrik jasotzen dutenak, jaialdi eta ekitaldi berezietan. Gainerakoetan, neska arruntak dira eta bizitza normala dute.

Tradizio honetako figurarik garrantzitsuena Katmanduko Kumaria da, eta Kumari Jatra jaialdia bezalako ospakizun zehatzetan baizik ezin da jauregitik irten. Jainkosa eta erregearen artean dagoen harreman estua publikoki erakusteko asmoarekin, Katmandu baila-

Kumari Jatraren jaialdiaren hasiera jendetsua Katmanduko Durbar plazan. Jauregiko baloian gobernuko funtzionarioak eta kargudunak egoten dira, besteren artean, Ram Chandra Paudel lehendakaria.



JAKOB GASCON

rako ospakizun handiena den Indra Jatraren lehen hiru egunak Kumariaren omenez ospatzen dituzte.

Katmanduko Kumariaren figura funtsezkoa izan da Nepaleko erregeak legitimatzeko. Quebeceko Unibertsitateko Asia hegoaldeko erlijioen irakasle Chiara Letizia Nepalgo antropologia erlijiosoan espezializatua dago. *Kumari jainkosa Auzitegi Gorenean* ikerketan idatzi zuen nola tradizioz, erregeak Kumariaren aurrean aurkezten ziren tika izeneko marka gorria bedeinkapen sinbolo gisa jasotzeko. Tradizioak, seguraski Jaya Prakash Malla erregearen garaian hasitakoak, Shah dinastiaren aroan (1768-2008, Katmandu) jarraitu zuen eta, matxinada Maoistaren ostean ere, estatuburu bakoitzak legitimazio erriuari eutsi dio gaur arte.

JAINKOSAREN LEHEN PAUSOAK ESTATU SEKULARREAN

2001. urtera arte monarkia konstituzionala zegoen Nepalen eta Birendra zen errege. Urte horretan, ordea, printze erregegaiak bere buruaz beste egin aurretik familia osoa erail zuen Narayanhi jauregian, erregea barne. Koroa erregearen anaia Gyanendrak hartu zuen orduan eta monarkia absolutua berrezartzen saiatu zen. Egoera kora-

pilatsua da, herrialdea 1996tik gobernuaren eta Nepalgo Alderdi Komunistaren (maoista) arteko gerra zibilean sartuta baitzegoen. 2006. urtean, gobernu demokratiko berriaren eta Alderdi Komunistaren arteko bake-akordioak sinatu zituzten eta 2008az geroztik herrialdea errepublika da.

2008ko urrian, finantza ministro maoista berriak, Baburam Bhattarai, iragarri zuen gobernuak ez zituela finantzatzeko Dashain eta Indra Jatra bezalako jaialdiak: gobernu sekularra zela kontuan hartuz gero, kostua handiegia omen zelako. Erabakia jakiterakoan lau eguneko istiluak piztu ziren Katmandu eta Bhattarai atzera egin zuen. Herrialdearen zati handi batentzat, erlijio-tradizioak duen garrantziaren adibide ona da gatazka hori. Tradizio horretan Kumariarena ere sartzen da eta askorentzat herrialdearen nortasunaren parte garrantzitsuenetarikoa da.

Kumarietikiko kultuak duen izaera dela eta, nesken bizimoduek gorabehera nabarmenak jasaten dituzte. Gehien aipatu izan diren eskubide urraketak izan dira: heziketa falta, gizarte-isolamendu zorrotza eta urte askoan gurasoengandik banatzea. Chanira Bajracharya Lalitpurreko Kumari ohiak, 2022an *New York Times*-i eskaintako elkarrizketan,



Kumaria gurdietan igota hiriko kaleetan eramaten dute jaialdiko lehen hiru egunetan.



Gorakhnath santutegia Katmanduko gune historikoan, Durbar plazan.

NEREA MENOR

esan zuen unerik zailena neska hilkor arrunt bilakatzea izan zela, izaera ez-jainkotiarra egokitzea, alegia.

Hedabideen aurrean, Kumarien senideak beti pozik agertu dira nesken karguarekin, ohore handia omen da haientzat. Kumari ohiak ere tradizioaren babesle sendoak dira eta beraien bizitzako garairik onena izan zela adierazi izan dute.

Nahiz eta hautapen- eta gurtze-prozesuaren inguruan dagoen hunkigarritasuna handia den, neskek beraien bizitzaren gorabeheretan zer esanik ez izateak, kanpoko eta barneko behatzaile askoren arreta erakarri du.

OHITURA EPAITUA

2005ean, interes publikoko auzi bat aurkeztu zuen Newar abokatu eta giza eskubideen aldeko ekintzaile Pun Devi Maharjanek Nepaleko Auzitegi Gorenean. Tradizioa epaimahaiaren azterketara eraman zuen. Esplotazio eta haur-lan gisa deskribatu zuen eta, askatasun pertsonala hain mugatua izanik, nesken garapen fisiko eta mentalari kalte eragiten ziola argudiatu.

Hala eta guztiz ere, auzi-jartzaileak ez zuen tradizioa deuseztatu nahi, eta eraldatzeko eskatu zuen. Maharjanek zera argudiatu zuen: Kumarien eskubideen

urraketak eta karguak dakartzan gastu ekonomikoak familiek beregain hartu beharrak (ez dago funts publikorik aldi baterako Kumariantzat) jadanik ohitura etetea eragin duela hainbat lekutan, eta haien eskubideak bete-betean bermatu ezean, tradizioa desagertu egin daitekeela.

Epaia ondorioztatu zuen giza eskubideen urraketa "frogaezina" zela. Kumarien erritu-jarduerak debozio tradizional onargarri gisa definitu zituen; haur-lana beharrean, Kumari-lana. Tradizioaren balio nabarmendu zuen, esanez funtsezkoa zela bai jarraitzaile budistentzat, baita hinduistentzat ere. Gaineratu zuen Kumarien parte-hartzea beharrezkoa dela Katmandu, Lalitpur eta Bhaktapurreko hainbat jarduera erlijiosoetan.

Inplikaturako alderdiek ondorioztatu zuten tradizioa modernizatzeko modua Nepaleko estatu sekularrean ez dela Kumariaren jainko-izaera ukatzea, baizik eta estandar garaikideak ezartzea eta tradizioa giza eskubideetara egokitzea.

GAUR EGUNGO EGOERA

Epaia adostu zenetik hamabost urte pasa dira eta Bhadra Sharmak, *New York Times* egunkariak Nepalen duen kazetariak, dio aldaketa handia izan dela, gahenbat hezkuntzari dagokio-

nez. "Orain, Kumariak badu irakasle bat, jauregira doana eskolak ematera. Eskolara joan ez arren, hezkuntza eskubidea bermatuta dago". Gobernu federalak eta tokiko gobernuak funtsak esleitu dituzte Kumariaren hezkuntzarako eta haren ongizaterako.

"Oraindik ere badago ahots disidenten bat", emakume eta giza eskubide erakunde berrak ari da Sharma kazetaria. "Baina epaiketatik, aldaketa nabarmenak egon dira, hezkuntzaz gain gurasoekin denbora gehiago pasatzen du orain Kumariak eta postutik erretreta hartzen duenean estatuak pentsio moduko soldata ematen dio hilero". Kumari izateak "ohorez eta bizipozez betetzen ditu" bai neskak eta baita gurasoak ere, dioenez.

Alde batetik, epaiak Kumarien giza alderdia aitortu zuen, zeinak eskubideak eta zaintzak merezi dituen. Bestetik, erlijioa estatuarentzat baliagarria dela dio, eta tradizioa babesteko erlijio-tradizioak aldatu egin behar direla. "Jainkosaren eta gizakiaren arteko *continuum* baten aitortpen partekatua, eta ez men-debaldeko erakundeek adierazten duten gizakiaren eta sinesmen jainkotiarren arteko bereizketa zorrotza. Honek eman zuen negoziatorako aukera", uste du Chiara Letiziak. ●

TU BISHVAT ZUHAITZEN EGUNA



GARBIÑE LARREA
ITURRALDE

Ez doa negu goxoa aurtengoa. Handik eta hemendik galdezka ari zarete: gripeak egurra emandakoan zein sendabelar den suspergarria, ospelentzat zein zen ukendua, xarabea gehiegi hartzitutakoan bota egin behar al den, ezturentzat zer egin... Gauza harrigarririk ez, neguko gaixoaldiei aurre egiteko botikina nola prestatu gaitzek beraiek, biziak, erakutsiko digute.

Beste botikin bat daukat nik buruan, ordea. Telebistako eta sare sozialetako irudietan inon ikusten ez dudana botikina, hura ere txikitua eta ezkutatua izango dutelako nonbait. Joan den udan Santio-belarraz (*Hypericum perforatum*) idatzi nuenean gerrek sortzen dituzten min anitzak aipatu nituen eta konturatu naiz badela min horien artean ezagutzen ez nuen min bat. Pantailaz hona ikusitakoak ematen didan mina, kolpatua sentitzeraino, tarteka Santio-belarra hartzeraino.

Palestatatik datozen irudiez ari naiz, infernutik egunero jasotzen dugun lekukotza horretaz.

Ez naiz gauza palestinarrei ezer esateko baina badaukatu gauza bat juduei esateko eta beraien ospakizun batekin du zerikusia. Hil honen 25ean ilargi betearekin *Tu Bishvat* ospatuko dute, zuhaitzen eguna, Talmudean aipatzen den lau Urteberrietako bat (bai, urtean lau Urteberri ospa litezke). Ezagutu nuenetik liluratu izan nauen ospakizuna, santuz eta Ama Birjinez (noizbait) garbitutako egutegi berri batean gustura jarriko nukeen jaia.

Naturaren festa da *Tu Bishvat*, aire librean ospatzekoa, zuhaitzak landatuz eta hauei bedeinkazio bereziak emanez;



Pareta-belarra (*Parietaria judaica*).

arbola sendo, noble eta emankorrek izan daitezzen, fruitu asko eman ditzaten baina ez hori bakarrik, egun honetan fruitu arbolen fruituak jatea ere derri-gorra da. Esker ona adierazteko modurik onena izaki zazpi fruta jan beharra dago; pikua, datilak, granadak, mahatsa... Freskoak zein lehortuak baina jan eta kantatu, biak egin behar dira.

Eta badakit egingo duzuela, zuen Jainkoaren legea obeditzen oso txintxoak zaretelako. Baten batek esan beharko dizue ordea zuen Torak esaten duen honako hau: natura errespetatu egin behar dela, baita gerra garaietan ere (Deuteronomio 20:19). Bi aldiz idatziko dizuet: arbolak eta basoak ezin dira suntsitu gerra garaietan eta are gutxiago orain, negurik gordinenean, barruan duten bizi indarra esnatzen hasiko delako eta hemendik gutxira barruko izerdia gorantz hasiko zaielako.

Hemendik esandakoak ez dizue askotarako balioko baina hau idazten duena

dotriñara joan zen *komunioa* egin aurretik eta Testamentu Zaharreko Jainko zakar hari beldurra eduki behar zitzaio-la ikasi zuen; han dena baitzen zigor, izurrite, gerra, gaitz eta maldizio. Beraz *Tanakharen* lehen bost liburuak berri-rakurtzea gomendatzen dizuet, zer datorkizuen akorda zaitzeten.

Zuen Jainkoa bere hitza betetzekoa bada zigorra datorkizue, baina naturak ez dizue zigorrik ekarriko. Naturak zuentzat eta palestinarrentzat ekarriko ditu berriz ere sendabelarrak. Ar-bendolondoak denontzat loratuko dira. Eraitsi dituzuen etxeen harri pilatan jaioko dira pareta-belarrak (*Parietaria judaica*), espaloi zirriztuetan txikori-belarrak (*Taraxacum officinale*) eta plantaina (*Plantago lanceolata*) eta txikitu dituzuen ospitaleen atarietan pasmo-belarra (*Lysimachia arvensis*). Lau horiekintxe osatu daitezke barneko eta kanpoko zauri batzuk, oxala handiena, gorrotoarena. ●

A ZE FAUNA!

HAIZEAREKIN
DANTZAN

NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Egun osoa airean, buelta eta buelta, haizearekin dantzan kometa balitz bezala... eguzkiari itzal egiteraino! Horra hor, mirua hegan. Hortik dator eguzkia lainoetan atera eta sartu dabilenean “miru-itxala” edo “miru-kerizpea” dagoela esatea, Felipe Aierbe al-tzotarrak *Euskal Erria* aldizkarian idatzi zuen bezala.

Hegan dabilela, isatsa zein kolorea dira nabarmen, azpitik kolore gorri eta zuriek kontraste handia egiten baitiote. Ezaugarri horrek ematen dio izena: miru gorri, baina hernaniarrek esaterako, kolore gorria baino badirudi zuria dutela gustukoago eta miru zuria deitzen diote. Beste leku batzuetan, aldiz, bere isatsaren formagatik jaso izan du izena: mirurkila, buztanbiko edo buztansarde, besteak beste. Ezaugarri horregatik da hain zuzen mirua identifikatzeko erraza, izenek dioten bezala bere isatsak urkila itxura baitu, v formakoa, miru-isatsa ere esaten zaiona leku batzuetan. Baina jende askok ez dakiena da badirela bi miru espezie. Miru beltza da bere lehengusua eta miru gorriarengandik bereiztea erraza da. Izenak dioen bezala, miru beltza ilunagoa da, marroi iluna, eta bere isatsa aldiz, v beharrean u itxurakoa. Euskal miru gorriek urte osoa igarotzen dute gure artean, nahiz eta neguan Europa erdialdeko ehunka indibiduo etortzen den gure lurretara hotzetik ihesi. Baina indibiduo hauek udaberrian buelta egiten dute iparralderantz, umatzera. Lehengusuak diren miru beltzek aldiz, negua Afrikan igarotzen dute eta udaberrian etortzen zaizkigu bertan umatzera.



BENAT IBARBIA

MIRU GORRIA

Milvus milvus

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia

NEURRIA: Mokotik isatsera: 61-72 cm. Hego-luzera: 140-165 cm.

NON BIZI DA? Landa zabala eta basoa dauden inguruetan.

ZER JATEN DU? Hegazti ertainak, mikrougaztunak, anfibioak, narrastiak, intsektuak, sarraskia, zaborrak.

BABES MAILA: Europa mailan babestua.

Beraz, neguan miru bat ikusiz gero, miru gorria izango da segurua!

Harrapari honen ezaugarrietako bat harrapari ez oso trebea izatea da. Hau dela-eta, harrapatzeko errazak diren harrapakinez elikatzen da. Udaberri eta uda partean tamaina txikiko animaliak, gaixoak edo esperientzia gabeak ehizatzen ditu gehienbat, esaterako: mixomatosisidun untziak, oraindik hegan ondo egiten ikasi ez duten hegaztien txitak, mikrougaztunak, anfibioak, narrastiak eta intsektuak. Neguan aldiz, ez daude hainbeste harrapakin eta ondorioz, zabortegei, hiltegi, muladar zein baserri inguruetan bilatzen du jana. Eta nola ez,

janari erraza diren txita eta oiloei ere ez die muzin egiten. Azken honek fama txarra eman dio, bere adibide Sakana inguruan duen izena: “Txita-jataile”. “Txito-lapur” edo “oilo-lapur” ere deitzen diote askok. Oso arrunta da errepi-de inguruetan nahiko baxu planeatzen ikustea, kotxeek harrapatuta hildako animalien bila.

Miru gorria babestua dagoen espeziea da. Europako miru gorri populazioak ez daude hain egoera txarrean, baina Europa hegoaldeko populazioek, aldiz, beherakada nabarmena izan dute azken urteotan. Beherakada honen arrazoi nagusietakoa pestizida eta pozoien erabilera da. Mirua landa eta zereal sorotara loturiko espeziea da, bertan egiten baitu ehizan. Ondorioz, nekazaritza eta landa eremuetan sistematikoki eta ugari erabiltzen diren pozoiek miruen harrapakin diren espezieak pozoitzen dituzte, hauek ere pozoituz. Araban esaterako, 2018-2020 artean pozoitutako hamar indibiduo antzeman ziren. Hauek duten fama txarragatik pairatzen duten jazarpenak ere kalteak eragiten dizkio espezieari. Eta azkenik, lur erabilera aldaketek umatzeko edo ehizatzeke lekuak murriztu edo desagerrarazi ditzakete. Gipuzkoako miru gorri gehienek adibidez, Monterrey pinuetan egiten dute habia. Ezaguna da banda marroiaren eraginez pinudi asko desagertzen ari direla: ez dago oraindik argi honek miru gorri populazioan izango duen efektua, baina ona ez dela izango aurreikusi daiteke. Bestalde, 2020-2021 artean beste hamar indibiduo autoak harrapatuta hil ziren. ●

DITXAZKO ETA DESDITXAZKO GURE MIHURA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Nola soinu, hala dantza. Agiantza hoberenak. Bai, desio hoberenak, baina mihura hiltzera goaz. Mihura (*Viscum album*) sasoirik okerrenera iritsi da, kiski-kaska lepoa mozten zaion sasaira. Mihura soinuak eta mihura dantzak. Mihura neguko solstizioa ospatzeko, noizbait egun-argiak laburtzeari utzi eta egunez egun pittinka-pittinka luzatzeari ekin diola goresteko: pozaren mihura. Orain etxeak mihura bitxiarekin apainduta ikusiko dituzu. Bada, ordea, zoritxarraren mihura ere.

Mihurak ez daki lurrean errotzen. Landareen zuhaitz genealogikoan ez dakigu noiz, gehiengoarengandik bereizi eta bizimodua lurrean moldatu beharrean, beste zuhaitz eta arbolen gainean bitxi bizitzea erabaki zuen, haien adarretan sustraiak sartu eta izerdia zurrupatzuz. *Zestoarren erretolika* liburuan ederki asko jaso zuen Agurtzane Azpeitia Eizagirrek herri horretan nola argitzen duten mihuraren bizilegea: "Mihura parasito bat izatea, sagar-arbolai odola txupauko baliyo bezala bizi da". Bizkarroia edo parasittoa da bai, izerdia kentzen dio ostatatzaileari; hobeto esanda hemiparasittoa da, erdi parasittoa alegia; haustorio izeneko sustraiak izerdi gordina lapurtzen diote arbolari eta mihurak berak egiten du fotosintesia behar dituen azukreak sortuz.

Zuhaitz eta arbolentzako apopilo txarra. Mari Karmen Mitxelenak ondutako Elbira Zipitriari buruzko liburuan honela jasoa du: "Astelehen goizean ikasle txiki bat etorri zitzaion mihura sorta polit batekin: 'Andereño, zuretzat'. Elbiraren azalpena hauxe izan zen: 'Mihura sagarrondoaren gaixotasuna da, beraz, ez



JAKOBA ERREKONDO / CC-BY-SA

da egokia opari egiteko. Eskerrik asko, baina esan aita eta amari hurrengo baterako".

Neguan azaltzen dira mihura tortokak, ostatu hartua duen landareak hostoak botatzen ditu eta bistaraten dira. Negua da, baita ere, mihura izerdi zurrupatzaile kaltegarri horiek kentzeko sasoi. Esaerak honela dio: "Heldu deanean neguila, ken sagar ondoari mihula". Labana zorrotz batekin adarraren kontratik moztu, sustraiak kenduz. Zaharra bada adarra bera moztu, mihuraren aurretik.

Neguan bere fruitu zurizkekin txorientzako janari biltegi dira, eta haiek hedatzen dute mihura. Hazia lurrera erortzen bada galdu da. Txoriek jan eta bere zirinetan zabalduko dute adarrez adar. Hazia itsatsita, laster hasiko da sustraiak adarrean sartzen. Begira nola

dioen Azpeitiak aipaturiko *Zestoarren erretolikan*: "Sagar-mirura txori-ziriñetik peatzea, arbola-adarretan azaltzea. Kastarruak izateia normalian peatzaille nagusiyak". Garastarroa, agi danean, mihuraren amorante gozoena.

Sendabelar ezaguna ere bada; besteak beste, behi edo ahuntz ume egin berria suspertzeko bere ura ematen zaio. Mihura bera da ditxa onezko eta desdixazko. Baina bai dela gurea, begira zenbat izen eman dizkiogun: mihura, miula, migurka, bigura, biguri, pigura, biura, mira, miru, miruli, mirura, auki, miurka, midura, puhura, utzuri, usta, biska, lizka, aspiklero, aspielero, milura, lika, muhuru, puhurri, puhulu, bibora, mingura, migola, miola, jutzura, uzturi, ustura, astura, liska, minhuri, grimu, ostura, muhuilu... Eta alkisan eta alkistan ere ba ote? Nork daki? ●

KALASKA KOOPERATIBA

HARAGIA ERALDATZEKO GUNEA,
SAKANAN ERALDAKETA BULTZATZEKO

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Duela urte gutxi arte ohikoa izaten zen herri bakoitzak bere hiltegia edukitzea. Azken hamarkadetan, baina, toki gehienetan desagertu egin dira hiltegi txiki horiek. Etxarri-Aranatz salbuespenetako bat izan da, baina azken urteetan gunea berritzeko eta eskaintza zabaltzeko beharra sumatu dute. “Altxorra izan arren, aktibitate geroz eta gutxiago zuen hiltegiak, eta berritzeko beharra zuen. Horretarako eta eraldaketa gunea martxan jartzeko prozesua jarri genuen abian 2018an”, azaldu du Nerea Viana Zugadik, Sakanako Garapen Agentziako elikadura arduradunak. Urteotako lanaketaren ondoren, martxan da honezkeroko hiltegi txiki berritua eta zatitze gunea.

LURRALDEARENTZAKO ZERBITZU
ESTRATEGIKOA

Sakanako abeltzainen eskaerari erantzunez abiatu zuten prozesua duela bost bat urte. “Tokiko elikaduraren mesedetara, eraldaketarako azpiegituren beharra zegoen sektorean: obradore txikiak, hiltegiak eta bestelakoak”. Abeltzainen eskaerekin bat eginez, garapen agentzian ere lehen sektorea bultzatzeko estrategiak lantzen ari ziren, eta hiltegiaren eskakizunari erantzun bat emateko beharra ikusi zuten. “Abeltzaintza estentsiboak pisu handia du Sakanan, batez ere ardiei eta ganadu txikiari lotutakoak. Eta, alor horretan, haragi ekoizpenean hutsunea zegoen”, dio.

Izan ere, hiltegia martxan egon da urte guztietan, baina sakrifizioa soilik egiten zuten bertan. “Ezin zuten zatitu, ontziratu, eraldatu... zerbitzu murriztak zituen, eta hobekuntzak behar zituen”.



NEREA MAZKIRAN / DIARIO DE NOTICIAS

2022an, Kalaska kooperatiba sortu zuten abeltzainen eta tokiko entitateen artean, hiltegiaren eta eraiki duten zatitze guneko kolektiboaren kudeaketa bere gain hartzeko. “Azaroan hasi gara zatitze gela erabiltzen; momentuz, proba moduan ari gara bazkideekin lanean, haien txekorrak eta arkumeak eraldatzen”, argitu du Leire Ganboa de Miguel kooperatibako dinamizatzaileak. Otsailetik aurrera, zerbitzua ireki eginen dute, eta beraz, eskualdeko abeltzainek ez dute zertan Iruñera joan behar izan haragia zatitzera.


BURUJABETZARAKO PAUSOA

Bost ekoizpenetako bederatzi abeltzain dira, momentuz, kooperatibako bazkide. Hiltegi hiru langileek egiten dituzte zatiketa lanak, baina bazkideen kasuan, haiek egin dezakete zatiketa bertako az-

piegiturak erabilia. “Kostuak jaisteko aukera ematen du horrek, baina baita prozesu osoaren gaineko kontrola edukitzeko ere, burujabetza handiagoa”, azaldu du Vianak. Otsailetik aurrera, gainera, “triperia” edo garbiketa gela ere jarriko dute martxan. “Hankak eta tripak garbitzeko gunea izanen da, hemen oraindik baloratua den produktua baita”, gehitu du Ganboak.

Sakanako abeltzain estentsibo eta txikiak bultzatzeko egitasmo garrantzitsuak dira Etxarri-Aranazko gunea eta Kalaska kooperatiba. Belaunaldi berriei bidea erraztea ere bada bultzatzaileen asmoa. “Sakanan bizi eta lan egiteko, eraldatzeko azpiegituratik harago, Kalaska bailararen eraldaketarako proiektu bat izatea nahi dugu. Tokikoa, abeltzaintza estentsiboa eta giza mailako etxalde txikiak bultzatuko dituen”. ●

Marco Poloren mundu sinesgaitza



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Venezia, 1324ko urtarrilaren 8a. Marco Polo bidaiari eta merkatarri ezaguna hil zen, 70 urte inguru zituela. Hilzorian zela, inguruan bildutakoek *Munduaren deskribapena* liburuan kontatutakoak fikzioa zirela onartzeko eskatu omen zioten, baina hauek izan omen ziren bidaiariaren azken hitzak: “Ikusi nuenaren erdia ere ez nuen deskribatu, banekielako ez zidatela sinistuko”. Oraindik ere Marco Poloren liburuan jasotakoen sinesgarritasuna eztabaidagai da gaur egun.

Marco Polo ez zen izan Txinaraino iritsi zen lehen europarra, ezta bere familiako lehen kidea ere. Nicolo aita eta Maffeo osaba lehenago joan ziren Asiara eta Marco gaztea bigarren bidaian haiekin eramatea erabaki zuten. Baina Marco izan zen bidaia idatziz eta, gainera, modu erakargarrian jaso zuen bakarra, eta horrek ekarri zion ospea, halaberharrez.

Ekialdeko 26 urteko bidaia luzearen ondoren, 1295ean itzuli zen Italiara. Hurrengo urtean Venezia eta Genovaren arteko gerran parte hartu zuen. 1298an, Genovatarrek preso hartu zuten, Rustichello Pisakoa idazlearekin batera sartu zuten ziegan. Biek urtebete inguru eman zuten elkarrekin, eta Marcok kontatutakoari Rustichellok balio literarioa erantsi zion *Munduaren deskribapena* (edo *Munduko mirarien liburua*, edo *Milioia*, edo *Marco Poloren bidaien liburua*) osatzeko. Liburuak berehalako arrakasta izan zuen, baina, hain zuzen, kutsu literario horrek sinesgarritasuna kendu zion kontakizunari.



IL MILIONE

nari. Irakurleek fikzioa zela uste zuten.

Asian hurrengo urteetan gertatutakoak ere ez zuen lagundu. Kublai Kanen agintaldiaren ondoren, Mongoliar Inperioren gainbeherarekin batera, Asia eta Europaren arteko arrakala zabaldu zen, eta luzaroan ez zen europarririk hara joango Marco Polok deskribatutakoak egia ote ziren baieztatzeko.

Baina Marco Poloren sinesgarritasuna zalantzan jartzeko arrazoi nagusia garai hartako –eta hurrengo zazpi mendeetako– mentalitate eurozentrista izan zen. Bidaiari veneziarrak Venezia baino hamar aldiz handiagoak ziren hiriak deskribatu zituen, luxu harrigarritz beteriko

gorteak, ingeniariak obra ikaragarriak, bolbora, esku-dirua... Ezinezkoa zen zibilizatu gabeko herri haiek europarrak baino aurreratuagoak egotea.

Rustichellok idatzitako jatorrizko bertsioa galdu egin da, eta soilik hamai-ka aldiz idatzitako moldaketak, transkripzioak eta itzulpenak iritsi zaizkigu. Ikerlariak liburuan jasotako hainbat datu gezurtatzeko gai izan dira, eta beste datu asko oraingoz ezin izan dira frogatu. Baina badira garbi baieztatu diren beste datu asko ere, Marco Polok berak duela 700 urte aurreratu bezala, Mendebaldeko nagusikeriak sinesten uzten ez dizkigunak. ●



NIYSIFA

New Yorketik etxera

Kanbodiako Gobernuak urteak daramatza 1970eko hamarkadan, gerra zibilean eta Pol Poten diktaduraren hasieran herrialdeari espoliatutako ondarea itzultzeko eskatzen. Eta New Yorkeko Hegoaldeko Distrituko Fiskaltza Federala Metropolitan museoa dauden 16 piezaren inguruko ikerketa egiten aritu da. Berriki baieztatu

dute pieza horiek Douglas Latchford arte trafikatzailaren bidez iritsi zirela museora eta, ondorioz, piezak jatorrira itzuliko dituzte –14 Kanbodiara eta beste biak Tailandiara–. Berri ona izan arren, halakoak titulartan geratzen dira maiz, itzulitako pieza kopuru txikiak eta prozesu mantsoak ia ez baitio eragiten espolioaren arazoari. ●

MAHAI-JOLASAK



MIKEL OLABIDE / ARGIA CC BY-SA

Hizki Pizti, orain tailer formatuan

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Irakurtzen hasi nintzen garaiko oroitza-penak baditut. Aste honetantxe berriro dut kontua lagun batekin, herriko liburutegian haur baten ahotza silabaz silaba hitzak josten, astiro-astiro, entzun dudanean. "Oso garbi gogoratzen naiz momentu horietaz, mundu bat deskubritu nuen; oroitzen naiz bazter guztietan topatzen nituela hitzak eta horiek irakurtzea lortzeak izugarritzko zirrara pizten zidan", esan nion. Bizitzako etapa eder bezain garrantzitsua. Eta justu hor, une horretan dauden haurrekin egiteko tailerrak antolatuko dituzte *Hizki Pizti* karta-jolasa erreminta modura hartuta. Jolas pedagogikoak, etxeko txikienei irakurtze- eta idazte-prozesuaren lehen pausotan laguntzeaz gain, Euskal Herriko animalia ezagutzeko aukera eskainiko dizu.

Durangoko Azokaren Saguanbara gunean eskaintako hitzaldi-aurrezpenaren ondorio dela esan genezake,

nahiz eta jolasa sortzen hasi zirenerako tailerrak eskaintzearen aukera mahai gainean izan. Forma eman gabe zuten oraindik, abendu hasieran kartak aurkeztu zituztenean, baina "Durangon haurren zein helduen partetik jasotako erreakzio eta erantzunak bultzatuta eta bertaratutako batzuen eskaera zehatzak aintzat hartuta, ikusi genuen garbi, egin behar genuela", azpimarratu dute sortzaileek.

Material pedagogiko hori egiteaz arduratu dira Eñaut Aiartzaguena, Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue eta Lore Erriondo, eta Egidazu izango da saioen dinamizatzaile. Mahai-jokoan eskaintzen diren jolasak baliatu nahi dituzte irakurketa- eta idazketa-prozesuan murgilduta dabiltzan haurrekin, gurasoekin eta hezitzaileekin tailerrok bideratzeko. Era berean, jolasak Euskal Herriko animalia espezieak ezagutzeko aukera emango du, eta baita ahozkotak suna lantzeko ere. Modu ireki eta ludi-

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri deni, komunitatera!

“

Kalitatezko eta egiazko kazetaritza euskaldunari sostengua adierazteko. Zorionak zuen lanagatik”.

Baionatik Kaietek

“Garai ilunotan Argia behar dugulako. Argizkari (aldizkari) honen balore eta filosofiarekin bat egiten dudalako”.

Urretxutik Iñigok

“Gurea ez badugu zaintzen, beste inork ez digu zainduko”.

Pinsequetik Aitorrek

koan jardun ahal izango dute tailerrera bildutakoek eta bakoitzak dakiena partekatzeko aukera ona izango da.

NORI ZUZENDUTA?

Hiru aukera daude: batetik, soilik haurrentzako tailerra; bigarrenik, familientzako; eta azkena, ikaste-txeentzako eskaintza. Tailer guztietan karta-jolasa izango da oinarria, baina hiruretatik aukeratu denaren arabera, desberdin landuko dira aurrez aipatu ditugun gaiak, hala nola, ahozkotak suna, animalien ezagutza...

TAILERRA ANTOLATZEKOTAN BAZABILTZA

Posta elektronikoz solasaldiak@argia.eus helbidera idatzi eta jar zaitez lantaldearekin harremanetan. ●

DOINUELE EUSKARAZKO PLAZEN SAREA

Aurtengo zortzi hitzorduak

Euskara hutsezko liburuak eta diskoak kalera ateratzen dituzten azokak eta ekimenak zortzi dira Euskal Herri osoan. Gutxi eta txiki, agian. Baina izaeraz bereziak, gehienak duela sei urtetik hona sortuak eta iaiztik sarean elkartuak. 2024ko azoka eta ekimen bakoitza noiz izango den aurkeztu dute, elkarrekin.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Euskaraz irakurtzea eta musika entzutea plazer duenak gozatu ederra hartu dezake zortzi plaza hauetan barrena itzulia egiten badu aurtan. Urtarriletik abendura lau lurraldetan egingo duen bidaia bitxi horretan aurkituko ditu adin eta sormen generoetan berezitutako azokak eta ekimenak, baita publiko orokorrarentzako direnak ere. Lazkaoko azoka da esperientziarik luzeena duena, iragan abenduan egin baitute 35. aldiz. Hamargarren urte biribila beteko du ilbeltza honetan bertan (H) ilbeltza euskal nobela beltzaren asteak. Eta gainerakoak geroztik sortuak dira, urtez urte sendotzeko borondatea dutenak, Euskal Herriko hitzordu ezagun izaiera iristeko. 2023tik elkartuta daude Doinuele sarean eta lehen urtetik bidea gozagarriago sentitu dute, elkarren esperientziak ezagutu, informazioa partekatu eta indarrak batzeari esker.

**(H)ILBELTZA**

Urtarrilaren 22tik 28ra, Baztanen
ilbeltza.blogspot.com

Euskal nobela beltzaren astea. (H)ilbeltza elkarteak antolatuta. Aurtan X. edizioa izango da. Egitarau hau ondu dute:

- **Urtarrilak 22**, Arizkungo Medikuaeren etxean 19:30ean: Idazleekin solasean, VI. (H)ilbeltza bekaren irabazlea. Beñat Irastorza, *Altxa, hildakoak* Fred Bargasen eleberriaren itzulpenari buruz solasean.
- **Urtarrilak 24**, Anizko Mendi Elkartean 19:00etan: *Eusebio Erkiaga: Arranegitik bertze auzo batzuetara* Miren Agur Meaberen solasaldia.
- **Urtarrilak 25**, Berroetako Gure Ametsa elkartearen 19:00etan: Jon Alonso

Carvalho Euskadin liburuaz solasean.

- **Urtarrilak 26**, Irurritako Gizarte Bilgunean 19:30ean: *Mirande, film baterako zirriborroa* dokumentala Josu Martinez zuzendariarekin.
- **Urtarrilak 27**, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean 11:00etan: *Sorgin-ehiza Euskal Herrian* mahai-ingurua Amaia Nausia, Asisko Urmeneta eta Juainas Paul Arzaken artean.
- **Urtarrilak 27**, Erratzun: 17:00etan elkartearen liburu aurkezpenak: Ernesto Praten *Mendeku eskubidea*, Mikel Begoñaren *Hiru etxe Santa Monikan* eta Xabier Lasaren *Ura ez baita beti gardena*. 18:30ean *Eblatz* Susmagarrien gaua Erratzun barrena.
- **Urtarrilak 28**, Elizondon: 10:30ean plazatik abiatuta *Erraiak etsai* itzuli beltza Beartzunen. 19:00etan Arizkunenea Kultur Etxean izu-garirrizko bertso saioa Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta Saioa Alkaizaren ahotik.



Ezkerretik eskuinera eta behean: Julen Garate (Geure Gelatik), Maddi Zubeldia (Ziburuko azoka), Maitane Maritorea (Hilbeltza), Amaia Hennebutte (Ikusi Mikusi) eta Joxepa Madariaga (Lazkaoko azoka) eta goiko lerroan ezkerretik eskuinera Tasio Gorrotxategi (Literaturia), Maider Elkano (Ikusi Mikusi) eta Xabi Ezponda (Hernaniko azoka).



GEURE GELATIK

Apirilaren 12tik 14ra, Azkoitia
Emakumeek idatzitako liburuen azoka. Maxixatzen Euskaldunon Elkarateak antolatuta. Aurten 3. edizioa izango da.



ZIBURUKO AZOKA

Ekainaren 1ean
Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak. Baltsan Elkarateak eta ARGIAk elkarlanean antolatua, aurten 5. edizioa izango da.



SORMENE

Urriaren 30ean, Galdakaon
sormene.eus
Literatura azoka. Galdakaoko Udaleko euskara zerbitzuak antolatua, aurten 6. edizioa izango da.



HERNANIKO AZOKA

Urriaren 5ean
Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak. Dobera euskara elkarateak antolatua, aurten 4. edizioa izango da.



LITERATURIA

Maiatzaren 24tik 26ra, Zarautzen
literaturia.eus
Literatura azoka eta ekitaldiak. Literaturia kultur elkarateak antolatuta, 9. edizioa izango du.



IKUSI MIKUSI

Urriaren 11n eta 12an, Saran
ikusimikusi.eus
Haur eta gazte literatura eta ekitaldiak. Mari Gorri, Galtzagorri, Pamiela eta Sarako Udalak elkarlanean antolatua, aurten 4. edizioa izango da.



LAZKAOKO AZOKA

Abenduaren 13tik 15era
Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak. Gerriko kultur elkarateak antolatuta, aurten 36. edizioa izango da. ●

THE WICKER MAN-EK 50 URTE

Zumezko beldurra

Honela esan zuen Christopher Lee aktoreak: "Gidoia irakurri nuenean jakin nuen maisulan bat zela. Parte hartu dudan filmik onena da. Ez dut arrakastatsuen esaten, ezta garrantzitsuen ere; nire ibilbideko onena da. Ez da beldurrezko film bat, film beldurgarri bat da".

 JULEN AZPITARTE

Zinearen historiak utzi duen Drakula mitikoenaren hitzak dira, 1973ko abenduaren 6an estreinatutako eta Robin Hardy zinegile britainiarrek zuzendutako *The Wicker Man* filmaren harira eginikoak. Aktoreak xaman lanak egiten dituen aristokrata baten pertsonaia antzetzten du filmean. 1970eko hamarkadako film britainiar onenatarikoa da, eta askotariko izaera du: erotikoa, musika, poliziakoa, eta, jakina, terrorezkoa. Horrekin batera, garaiko beldurrezko generoan ezohikoak ziren elementuak ditu, tartean, paganismoa, zelta mitologia eta folk-rock psikodelikoa.

Nortasun poliedriko horrek zaleen arreta erakarri zuen, kultuzko bihurtzeraino, eta kultu horrek gaurdaino dirau.

Christopher Lee: "Ez zidaten ezer ordaindu, jendeak ez du sinesten, baina kontratua gordetzen dut froga gisa, batzuetan maitasunagatik baino ez baitituzu gauzak egiten. Filmaketa esperientzia zoragarria izan zen, banekielako zerbait harrigarria egiten ari nintzela". Aktoreak aipatzen duen xarma zoroa filmak haizatzen duen giro artegarri eta onirikoaren bidez jasotzen du ikusleak, zeina eguzkipean zabaltzen den, beldurrezko filmen kanon itzaltsuetatik urruntzeko. Puritanismo kristaua eta antzinako erlijioen gozamen paganoa aurrez aurre jartzen ditu Robin Hardy zuzendariak, eta borroka horren emaitza bitxia da, asaldatzailea eta misteriotsua. Horrek guztiak egiten du *The Wicker Man* aparta, kasik genero bat osatzeraino, bere bakartasunean.

Zumezko Gizonak, hain justu, Folk Horror azpigeneroaren hazia erein zuen *Witchfinder General* (Michael Reeves, 1968) eta *Blood on Satan's Claw* (Piers Haggard, 1971) filmekin batera. Hiruki horrek jaiotzaz erabat britainiarra eta zeharo lurrari lotutako terrore landatarra eratu zuen. Azpigenero horrek, baina, britainiar irlen mugak gainditu zituen planeta osora hedatzeko, eta gaur egun berpizte oparoa bizi du, saldoka baitira jarraitzaile eta filmak. Horren erakusle, Kier-La Janisse zinegile kanadarrak 2021ean estreinatutako *Woodlands Dark and Days Bewitched: A History of Folk Horror* (Folk Horror: Baso ilunak eta sorgin-egunak) dokumentala edo Ari Aster zinegile estatubatuarrek 2019an filmatutako *Midsommar*, zeina *The Wicker Man* filmaren kopia merkea baino ez den, beldur folklorikoaren zale amorratuen aburuz.

PAGANISMOAREN SUGARRAK

Robin Hardy zuzendariaren asmoa argia zen: kutsu paganoko beldurrezko filma egitea. "Antzinako erlijioa, kristautasunaren ondoren mende askotan ezkutuan egon zena, pentsatu nuen dibertigarria izango zela hura berriro agertuko zuen istorio bat asmatzea; paganismoa erlijio lagungarria da, jainkoei sakrifizioak egiten zaizkiena, zeinean haiek gero gauza onak egiten dituzten zeure alde".

Horretarako, irakurketa jakin batzuetan murgildu zen Hardy, besteak beste, Robert Gravesen *The White Goddess* eta James Frazer-en *The Golden Bough: A Study in Religion and Magic* liburuetan.



Terrore landatarra

The Blood on Satan's Claw (1971) filmeko zuzendari Piers Haggard zuzendariak erabili zuen estreinakoz Folk Horror izendapena, 2004an, *Fangoria* argitalpenean jasotako elkarrizketa batean. Aurreko terrorezko filmen ohiko lokalizazioetatik kanpo kokatu nahi izan zuen bere filma. Hartara, Hammer estudioak ekoiztutako pelikuletan agertzen ziren gatzeluak baztertuta, Haggardek landan kokatu eta filmatu zuen bere pelikula. "Folk-Horror estiloko film bat egin nahi nuen, ez *camp* bat".

Mendi edo landa inguruak berebiziko garrantzia dauka filmotan, terrorea bera maiz lurretik baitator edo lur azpian ezkutatzen baita, Haggarden filmean gertatzen denez. Nekazal giroekiko obsesio hori, sasoiko mugimendu kontrakulturalek sustatuko lurrera itzultzeko filosofiarekin lotu daiteke; hain justu, hippien ideologia bakezale eta ekologistarekin, baita erlijio alternatiboen fenomenoarekin ere. Areago, filmaren gidoilari Robert Wynne-Simonsek onartu zuen Manson familiaren kasuan oinarritu zela testua idazteko.

Beste bereizgarri bat komunitate txikien eta eremu horietara iristen diren norbanako arrotzen artean gertatzen den tentsioa izan ohi da, zeinak garai eta balio zaharren eta berrien arteko antsietatea islatzen duen, *The Wicker Man* pelikulan azaltzen denez, besteak beste.

Traza horiei erreparatuz gero, azpigeneroaren mugak lau-sotu egiten dira; esaterako, Sam Peckinpah zinegileak 1971n filmatutako *Straw Dogs* filmak kanpokoen eta bertakoen arteko tirabiren baldintza betetzen du, eta Tobe Hooper-ek 1974an filmatutako *The Texas Chainsaw Massacre* inguru landatarrean garatzen da, AEBetako *redneck* eremua izan arren.

Halere, aipatutako azken bi horietan ez da Folk Horror azpigeneroaren funtsezko beste ezaugarrietako baten arrastorik sumatzen; hots, erlijiozko elementua: paganismoa, kristautasuna, puritanismoa... Hori dela eta, litekeena da Folk Horror-a ondoen definitzen duen filma *The Wicker Man* izatea, aipatutako karakteristikak biltzeaz gainera, bakarra baita bere maisutasunean, eta bere itzala infinitua da.

Irakurraldi horietan ezagutu zuen zinegileak zumezko gizonaren erritual paganoa: zumezko gizona gai horrekin egindako estatua handia omen zen, antzinako druida zeltek sakrifizioak egiteko erabiltzen zutena, betiere Julio Zesarrek *Bello Gallicoren Kommentarii* (Galien gerrari buruzko iruzkinak) obran jasotakoaren arabera. Erritual horren existentzia adituek zalantzan jarri izanagatik ere, kon-dairaren oihartzuna ez da sekula itzali. *Sleuth* (Joseph L. Mankiewicz, 1972) eta *Frenzy* (Alfred Hitchcock, 1972) filmen gidoilari Anthony Shaffer-i eskatu zion gidoia egiteko Hardyk, eta David Pinner idazlearen *Ritual* eleberritik abiatu zen Shaffer, testua osatzeko.

IRLA PAGANOA

Filmaren abiapuntua oso sinplea da: Britainia Handiko irla batean neskato bat galdu da. Desagerpen hori ikertzeko polizia iritsiko da komunitate txiki horretara. Herritarrek ez dute bisitaria begi onez ikusiko, eta agenteak, era berean, uharteko giro bitxi eta itxian borrokatu beharko du. Desagerpenaren inguruko ikerketak aurrera egin ahala, poliziak atzemango du zelta jatorriko kultu pagano bat egiten dela irla horretan, zeinetan sexua eta hedonismoa modu librean bizi diren. Hala, desagerketa aitzakia baino ez da puritanismo kristaua –polizia–eta antzinako erlijioen gozamen paganoa –uhartetarrak– kontrajartzeko.

Zentzu horretan, oso esanguratsua da

Britt Eklan aktore suediarrek –filmean irlatarra– eta Edward Woodward aktore britainiarrek –polizia– antzezten duten eszena, *Willow's Song* folk kantu psikodelikoa entzuten den bitartean: Eklan dantzan ari da bere logelan, biluzik, horma joka, eta beste aldean, sufrikarioak

pairatzen ari da polizia, izerdi patsetan, errezoan, paretaren beste aldetik heltzen zaion tentazioari eusteko lanean.

Poliziaz eta herritar xumeez gainera, kontakizunean bada pertsonaia oso xe-lebre eta garrantzitsu bat, Christopher Leek antzezten duena: erritu paganoak zuzentzen dituen herriko aristokrata, Folk Horror estiloko filmetan oso ohi-koa den pertsonaia, antzinako garaiak, balioak eta tradizioak sinbolizatzen dituen, betiere bere pribilegioak mantentzeko asmotan.

250 pelikula baino gehiagotan parte hartu izan du Leek, baina *The Wicker Man* lan berezia zen berarentzat. Izan ere, musutruk lan egiteaz harago, filmaren sustapena ere bere gain hartu zuen aktore britainiarrek, pelikula ekoizti zuen estudioari, British Lioni, ez baitzitzaion filma gustatu. Estudioak metrajea laburtu eta ez zuen sosik inbertitu publizitatean. Eta egoerak Lee sutu zuen. "Ezagutzen nituen kritikari guztiei deitu nien, eta mesede bat egin ziezadatela eskatu: zinema aretoetan zegoen filma ikustera joan zitezela, sarre-rak nik ordainduko baintuen. Denak joan ziren ikustera, sarrera ordaintzeko eskatu gabe, eta aho batez goraiatu zuten". Aktoreak, halaber, filma sustatzeko bere bira finantzatu zuen. "Baton Rougera joan ginen, Louisianako Unibertsitatea zegoen lekura, eta ikasleek ikusi zutenean, filma aireratu egin zen, eta, ondorioz, garai guztietako kultuzko film handienetako bat bihurtu da". ●

Gaurko lokatza

The Witch (2015)

Sorginkeriari buruzko kontakizun liluragarria da. XVII. mendean Europatik Ingalaterra Berrira joandako familia baten inguruko kontakizuna da, zeina kolonoek lurralde berrian hedatutako sinesmen eta folklorea oinarritzen den.

Midsommar (2019)

Unibertsitate talde batek Suediara bidaiatuko du. Hälsingland-en, Hårga izeneko antzinako komuna ezagutuko dute, zeinak udako solstizioa ospatzen duen 90 urtetik behin.

Cuando acecha la maldad (2023)

Herri ezezagun bateko bi anaiak deabruak kutsatutako gizon bat aurkitu dute. Gaiztakeria bera erditzeko zorian dago gizona.



LIBURUA

Elkarrekin pentsatzeko proposamena



JON HERNANDEZ

MAITASUN KAPITALA KARMELE JAIIO

ELKAR, 2023

AMAIA ALVAREZ URIA

L iteraturako bi topiko nagusiak dira Eros eta Thanatos, maitasuna eta heriotza, eta maitasun erromantikoa elkarrekin pentsatzeko proposamena egiten digu Karmele Jaio bere azken eleberrian: *Maitasun kapitala*.

Azaletik bertatik argi geratzen da askatzeko zaila den korapilo baten aurrean kokatzen dela irakurlea. Eta lan honetako lehen planoan bikote heterosexuala egongo dela sumatu daiteke. Baina berde koloreak esperantza ere ekarriko digu, izan ere, maitasunak badiu aurpegi asko: indar askatzailea eta menperatzailea baita.

Olga da protagonista, eta hil berri den Martinekin sutsuki maitemindu da. Hala ere, harreman horrek gozamenaz gain min handia ere ekarriko dio. Nobela honetan bere sentimendu eta pentsamen-

duen berri izango dugu; bere doluaren garapenaren lekuko izango gara.


Artelan aukeratuek itxiko dituzte kapitulu asko, maitasun erromantikoaren diskurtso eta irudikapenak eskainiko dizkigu Jaio orriotan; botere-harremanak eta menpekotasuna alde batetik, eta zoriontasuna eta adiskidetasuna jarriko dizkigu balantzan bestetik.

Ikuspegi feministatik eta literatura-aren bidez landu nahi izan du maitasuna egileak eta ausarta eta anbiziotsua iruditu zait, baina, nahiz eta debaterako oso material ona iruditu zaidan eta ondo harilkatuta dagoela uste dudana, eleberriz mozarrotutako saiakera bat dela esango nuke.

Pentsamendua, kontzeptuak, ideiak esplizitatzen dira etengabe irudiak, sinboloak, metaforak bigarren mai-

la batean utzita. Protagonista unibertsitateko literatura irakasle bat izan arren, lan honetan maitasunaren teorizazioak leku gehiegi hartzen duela uste dut, fikziozko lan bat izateko, behintzat.

Asko gustatu zait buztinezko emakumearen irudia, bestearen desiraren arabera moldatzen, eraldatzen, egokitzen dena. Baita Bakarne pertsonaiaren kontrapuntua eta amaieran agertzen den erakusketaren ingurukoak ere. Edo auto-maitasunaren eta lagunekiko maitasunaren garrantzia azpimarratu izana. Edonola ere, esan bezala, protagonistaren eta bere ingurukoaren esperientziei utziko nieke hitz egiten gehiago, eta ez haien pentsamendu eta gogoeta arrazionaleri hainbeste leku eman. ●



MUSIKA

Kalekumeak!



LA URBE CHULERÍA, JODER!

AUTOEKOIZPENA, 2024

IKER BARANDIARAN

Bizkaiko Ezkerraldean nerabezaro berantiarrean sortutako Desorden taldeak nire arreta piztu zuen haien gaztetasunean punk-rocka sinesgarri eta fresko bilakatzen zutelako, baita harribitxia den haien abeslari Iratxeren jarreragatik ere. Gogoangarriak ziren haien kontzertuak eta erakusten zuten jarrera.

Taldea desegin zuten, baina orain, urte batzuk pasata, Iratxe abeslariak talde berri hau sortu du Ezkerraldeko Miriam eta Eneko "Alda"-rekin, eta Aramaioko Antxonekin (Volquete, 112). Kontzertuak barra-barra egiten hasi dira, eta gehiago itxaron gabe, Haritz Harreguyren estudioa jo dute sei kantu hauek grabatzera. Emaizta begi bistan

dago. Gauzak argi dituzte eta denbora oso azkar doa, ezta?

Kalekumeak dira erabat, eta rock-and-rollak izan duen lotsagabekeria non-nahi konbikzioz aldarrikatzeaz gain, "geriatrizatutako" eszena iraultzeko helburu argia dute, mahaian kolpea joz nagusi zein gazteak behingoz iratzartzeko asmo sutsuarekin.

Hacer algo da horren adibide, aho-bilorik gabekoa: 1980ko hamarkadako punk melodikoa tenpo erdiekin, ostia txarrekoa eta zirikatzailea. *Infernua* ilunagoa da, baina era berean itsaskorra, rocka beti zainetan. *Tus amigos*-ek badu Anticuerpos eta Mamen-ekin ahaidetasunik, gerora bizkortzen bada ere *hit!* bat bilakatuta.

Diskoa kaleratu aurretik argitaratutako bideoklipeko pieza da *Geltokia*, diskoaren ardatza edo, hobe esanda, erdia: balada dela diote taldekideek, baina hau ere barneko indar eta amorru handia azaleratzen duen kantatar urratzailea da. Bideoak, gainera, emaitza musikal desberdina izanda ere, taldearen bestelako irudia ere erakusten du; originala da. *Ez da taldearen ikur eta asmo erakusle argia: punk-rock azkar eta zirikatzailea. No profanación* handia da, beste *hit!* bat, Sumision City Blues taldekoei karta jokoan irabazi eta horren onena hartuta bere egiten dutena. Azkenik, *Última hora* da kontzertuei bukaera emateko kantu bortitz eta eztandagarria. Biba zuek eta zuen harropuzkeria zirikatzailea! ●



Behin baziren baionar batzuk...

GORKA PEÑAGARIKANO **JON IRAUNDEGI**

Eesango dugu noizbait. Joan ikustera, baina jada ez. Pausa luze baten aurreko despedida besta egin zuten Donostian, bostehun lagunez beteriko Intxaurrendoko kultur etxean. Ez da dudarik Willis Drummondak eskaintzen duen maila eta energia inork gutxi emateko ahalmena duela, eta hori bistan geratu da agurreko kontzertuan, paretetik igotzen jarri baikintuzten publikoan ginen zortedunok. Zortea edo, bizkor ibiltzearen saria; bi hilabete lehenago agortuak ziren sarrera guztiak, artean esan gabe zela azken kontzertua izango zutela.

Ez ziren Durangoko Azokan egon, eta horren ostean eman zuten oholtzak utziko zituztenaren berri. Urteotan jarduteko izan duten moduaren adierazle, nabarmenkerietan erori gabe. Azken kontzertu honen egunean, *Berria* egunkariko Leire Casamajou kazetariari, bestarako izango zuten plana iragartzen zion moduan, gogoetarako adierazpen batzuk ere egin

zizkion Jurgi Ekizak. Gaurko egunean gehien handitzen diren taldeek marketina eta enpresagintza menperatzen dutela zioen, eta zaila duela handitzea "enpresa espiritu" hori ez duenak. Mugatuak ikusten zituzten beren buruak. Baina muga horien barnean bat egiten du jende askok. Gaitasun analogikoak gailentzen dira Willis Drummondaren kontzertuan: indarra, publikoarekiko duten gertutasuna, energia, poza transmititzeko abilezia, plazera... Gauza simple bezain autentikoak distortsioen munduan. Areto-sarretan, ez beti, *merch*-a: bi kamiseta simple baino ez, zuria eta beltza. Haien lekuan aspaldi hasiko ziren batzuk umeen *body*-ak, tazak, jertseak eta abarrak egiten, eta musikaren irudia bideo bihurtzen. Edo azken kontzertua dela esan, foku guztiak hamaika hilabetez bereganatu, *sold out*-ak saldoka egin. Willisen formetan kabitzen ez diren erabakiak, alegia.

Dena idaztekoa omen da... Bada, Willisek idatzi du zeozer euskal musikan.

WILLIS DRUMMONDEN AGUR BESTA

NON: Intxaurrendoko kultur etxean, Donostian

NOIZ: Urtarrilaren 5ean

GONBIDATUAK: Zetkin, Elvis Caino DJ, Indezen DJ eta Zumitrenko DJ.

Hemeretzi urteko ibilian bederatziko disko kaleratu dituzte baionarrek. Bi urteko epean lehen biak, eta, gailurra jotzeko, *A ala B* kateatu zuten urtebetara, disko dema. Aurretik ere eginak zituzten kantu tumatxak, Intxaurrendoko publikoaren estimukoak, *Noiz da gero?* edota zenbait kuadrillaren ereserki Ur gainean. Gero, *Anai* kanturako Karlos Osinaga *Txap* gonbidatzeak eragiten duen emozioa... Jendea jauzika jartzeko ez da motibo gehiagorik behar. "Eman dena, azken kantuak dira, gero ez damutu", esan zuen Xan baxujoleak. Egin zion kasu jendeak. Mugikorak, gaurko egunerako, apenas ikusi ziren aretoan.

"Aberatsa izan nahi nuen / baina ez naiz izango", zioten bigarren diskoa zabalteko kantuan. Aberastasuna dirutan neurtuko bagenu, arrazoi. Bilatu, baina, bestelako formetan. Eta egin topa bizitzaren alde, Intxaurrendon egin genuen bezala, Willisen aurrezkien kontura, txupito bana hartuta. ●



Bertso-zopa

Osatu Nerea Ibarzabalek, 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapeldunak, abenduaren 16an Bilboko finalean botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *XILABARA jina nauzu*.

Gaia: Gaztetatik egon zara koadrila berean. Oso gustura egon zara beti, baina azken aldian sentitzen dozu emon behar ez dozuzan azalpenak eskatzen deutsuezala.

_____ hasi ginenak dena bertatik bertara gu azkenean _____ formetara egin gara irten orduko arropen azgazki bat badaezpada eta _____ mobila beti mahai gainean _____ zorionez beti izan naiz nahikoa _____ nomada ta lagun desberdinekin pasa dut azken _____ baina gaur kafera joan ta lagunen _____ berriro berandu zatoz nortzuekin _____ zara

Behin ibili ginelako jolastokian _____ orain bizitza osoa pasatu behar _____ ondo kontrolatzen naute beraien _____ dorretan janzkeran elkarriketan nora noan _____ batzutan utzi nahi nuke gure harremana hor _____ kortse bat bezain zurruna _____ baitzait formetan eta konturatu bainaiz orain momento _____ toxikotasuna ez dago bakarrik bikoteetan



Word search grid containing letters for the Bertso-zopa puzzle.

Sudokua

ERRAZA

9x9 Sudoku grid with some numbers filled in.

ZAILA

9x9 Sudoku grid with some numbers filled in, labeled as 'ZAILA'.

Gurutzegrama

9x9 grid for the Gurutzegrama puzzle with some cells shaded red.



6. Soka sendoa. Nekazariaren lanabes, lau edo bost ohol horzdunoz osatua. 7. Kaleko. 8. Begirune. Izaera edo zentzu egokia.

ESKER-ESKUIN:

1. Kirol elkarte. Alabaren senar. 2. Musulmanen baru hil. 3. Zoro, ergel. Hertsia. 4. Iskanbila. ... guneak, interneten nabigatzeko zentro publikoak. 5. Aditzak sortzeko atzizkia. Ugaztun emeen ugaztetan eratzen den likido zuria (pl).

GOITIK BEHERA:

1. Iazkia. 2. Argazkiko mendia. 3. Sasoiara heldua. Arabako Kontsumitzaileen Elkarte. 4. Herri hizkeran, bada. Mehatxu. 5. Agur. 6. Deabru, prakagorri. Einsteinioaren ikurra. 7. San Martin ..., Nafarroako udalerria. Euskal jeinua. 8. Ikaraz. 9. Idazteko era.

EBAZPENAK

Eskolari hasi ginenak / dena bertatik bertara / gu azkenean elkarren / formetara egin gara / irten orduko arropen / azgazki bat badaezpada / eta bestela mobila / beti mahai gainean laga / zorionez beti izan naiz / nahikoa txori nomada / ta lagun desberdinekin / pasa dut azken bolada / baina gaur kafera joan / ta lagunen begirada / berriro berandu zatoz / nortzuekin egon zara. Behin ibili ginelako / jolastokian olgetan / orain bizitza osoa / pasatu behar zorretan / ondo kontrolatzen naute / beraien kontrol dorretan / janzkeran elkarriketan / nora noan oporretan / batzutan utzi nahi nuke / gure harremana hor bertan / kortse bat bezain zurruna / bihurtu baitzait formetan / eta konturatu bainaiz / orain momento honetan / toxikotasuna ez dago / bakarrik bikoteetan.

3x3 grid for the EBAZPENAK puzzle.

ZAILA

3x3 grid for the EBAZPENAK puzzle, labeled as 'ZAILA'.

ERRAZA

Word search grid for the EBAZPENAK puzzle.

ERRAZA: 1. KRATURRA, 2. LARRUN, 3. UMOA, AKE, 4. BA, ZEMAL, 5. DIOSAL, 6. SATAN, ES, 7. UNX, EATE, 8. IKARAN, 9. IDAZKERA. GOITIK BEHERA: 1. KALETAR, 8. ADEL, SENNA, TU, ENSEAK, 6. UNAMA, ARE, 7. ERO, ITXIA, 4. ARAZOA, KZ, 5. 1. KLUB, SUIH, 2. RAMADAN, 3. ESKER-ESKUIN:

Lide Hernando Muñoz

KANTATZEARI EMANA



'IZOTZ URA', LEHEN LIBURU

"22 urterekin Literatura masterra egin nuen. Musikan konfiantza gehiago izan dut idazten baino. Irakasleak, onena, dakigunari buruz idaztea zela esan zigun. Horregatik, liburua gaur egungo musika industria barrutik ezagutzen duen baten testigantza fikzionatua da. Pertsonaiek nire bi pentsaera islatzen dituzte, askotan talkan egon direnak. Idaztean ohartu naiz gizarteak, guk, polarizatu ditugula bi jarrera horiek, eta onartu egin behar ditugula kontraesanak. Batzuetan, gurekoiago jokatu nahi dugu, eta besteetan, supermilitanteak izan nahi dugu, eta dena egin gainontzekoengatik. Bi postura horiek islatzen ditu bi nesken adiskidetasun harremanetik".

"Liher taldeari esker ikasi dut aske izaten eszenatokian"

"Harreman ireki ez eksklusiboa" du Lide Hernando Muñozek (1991, Donostia) musikarekin. Liher taldearekin pausaldia eginda, *Bele* musika proiektua aireratu berri du. Berriki aurkeztu du *Izotz ura* liburua ere, Susa argitaletxearekin. Sorkuntzatik bizitzea erabaki osteko etapa baten hasiera da, muga askoduna, era berean, baina mugarik gabea. "Nahi dudana egiteko gogoia dut", dio.

✍ IZAR MENDIGUREN COSGAYA 📷 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Nola definituko zenuke musikarekin duzun harremana?

Harreman ireki ez eksklusiboa da. Pixkanaka nire bizitzako gauza zentralena bihurtu da. Uneotan nire lan printzipala –ogibide zena– irailen utzi nuen, eta orain abestera dedikatzen naiz. Egunero daukat kontzertu edo hitzaldiren bat. Oraingoan, zorian gehiago ematen dit zorigaitza baino, nahiz eta bidea latza izan. Industriaren antolaketa-modua ez da justua –hainbat faktoregatik–, baina musikak asko ematen dit, ez naiz nekatu, eta hala aritzea espero dut denbora askoan.

Noiz eta nolakoak izan ziren zure lehen notak?

Musikan 21 urterekin hasi nintzen. Txikitatik abesten nuen etxean eta ikastolan. Trikitiko irakasleak askotan jartzen gintuen abesten, eta eskolako ekitaldietan kantatzen nuen. Karrera bukatzean erosi nuen gitarra, eta hor hasi nintzen abesti propioak jotzen. Gero, piano-jotzaile bat ezagutu nuen, eta kalean jo genuen bi udaratan turistentzat, Donostian. Sekulako irakaspena izan zen, egunero kalean 2-3 orduz jotzen baike nuen. Horrela hasi nintzen ikasten, bidean, ahotsa ez nekatzeko. 22-23 urterekin lehen maketa atera nuen.

Arrazoi gutxi, denbora asko izan zen zure bakarkako lehen maketa, gerora heldu zen Liher taldea. Zer du Lidek Liherretik, eta Liherrek Lidetik?

Aske abestea. Hasieran geldi nengoen, eta ez nuen uzten nire askatasuna naturala izaten. Denborarekin, Liher taldeari esker ikasi dut aske izaten eszenatokian. Liherrek Lidere ngandik, aldiz, nahiz eta estiloa gogortu, nire ahoskera jaso du, kan- taera souleroa.

Liherrekin Tenplekuak erre dituzue. Parentesia iragarrita, orain zer?

Musikarekin jarraitu, beste formatu batzuetan. Helduen bizitza geroz eta konplikatua da, eta entseatzeko ez bestetarako geratu ahalko gara: kafe bat hartu edo parranda egiteko. Beraiekin elkartzeko gogoia dut, baina jo behar izan gabe. Nahita iragarri dugu etenaldi mugagabea, nahiz eta beldurra eman horrek. Ez da utzi nahi dugula, etenaldiari mugarik ez diogula jarri nahi baizik, gogoia badugu elkartu eta berriz hasiko gara. Zortzi urte daramatzagu gelditu gabe, 400 kontzertutik gora jo ditugu Euskal Herrian eta Europan, eta nekatuta gaude fisikoki zein



"Orain, talde gazteek 'management' enpresei deitzeak tristetu egiten nau: lehenbizi zure bidea egiten saiatu, ur horietan mugitu, eta ikusi zein erraza edo zaila den".

mentalki. Asko maite dugu elkar, baina burua beste gauza batzuetan murgiltzeko gogoz gaude, ez musikan bakarrik. Gogoia dugu parentesia ireki eta pittin bat elkarren falta nabaritzeko.

Zuzenekoiei ematen diezun indarra, ahotsa eta gorputza izugarria da. Eszenatokiko jarrera hautu kontzientea da?

Bilakaera naturala izan da, ez hautua. Musikak aurrera eramaten zaitu, doinu intimistagoa balitz gutxiago mugituko nintzateke. Hala ere, presentzia ez da mugimendua eta janzkera, fisikotik ateratzen da. Denborarekin lortutako askatasunaz oso harro nago, eszenatokira igotzean klik egiten dut, eta jendeak zer pentsatzen duen ahazten saiatzen naiz: nor naizen, nondik natorren, zein adin daukadan... Abestitik abestira burbuila hori puskatzen da batzuetan, eta ni izatera itzultzen naiz, barrez hasten naiz.

Bele proiektua abiatu berri duzu. Zer nahi diozu eskaini zozaori?

Ondo pasatzeko musika ezberdina da *Bele*. Sortzen ari garen soinua ez dago

gaur egun Euskal Herrian, nahiz eta batzuekin alderatu daitekeen. Nahiko genuinoa da egiten ari garena Euskal Herriarentzat. Ondo pasa daitekeela erakutsi nahi dut, dantzatzuz, irribarre batekin bukatuz, kontzertu polit batean gozatzuz. Musika afroamerikarrak ez du izan inoiz Euskal Herrian harrera potenterik, beti jo izan dugu gauza zuriagoetara: rock edo pop britainiarra, folka... Nik beti edan dut musika afroamerikarretik, soula, aranbi...

Euskarazko kultur eszena aldatzen ari da?

Zeharo, eta sekulako abiaduran. Eten-gabe geratzen zara atzean. Durangoko Azokan, joan den urtean, musikan 300 nobedade egotea sekulakoa da, bizi garen biztanle kopurua kontuan hartuta. Pandemiak birak eta zuzenekoak etetea ekarri zuen, baina jendeak etxean ekoizteari ekin zion. Gaur egun, lokalak ez daude beteta, garajeetan egiten zen rocka edo zarata, eta orain ez. Beti aldatzen ari da.

Esaterako, musika industrian, *management* enpresatara jotzen du jendeak. Marrazoak dira, geroz eta handiagoak

dira eta geroz eta gutxiago daude. Talde gazte asko doaz horra. Gaztetxeen sarea geroz eta ahulagoa izateak eragin du, akaso, horretan. Lehen, gaztetxetara deituta, zure kabuz jo zenezakeen. Orain, talde gazteek *management* enpresei deitzeak tristetu egiten nau: lehenbizi zure bidea egiten saiatu, ur horietan mugitu, eta ikusi zein erraza edo zaila den. Jai eremu aldarrikatzaile asko ere, enpresek antolatzen dituzte, eta hor ere kontraesana dago.

Zer nolako kultur industriarekin amesten duzu?

Askotarikoa dena. Jendeak bururatu ahal zaizkizun estilo guztiak egiten ditu euskaraz, baina industria ez da horren horizontala. Irudikatzen dudana industrian, askotariko sorkuntza legoke, eta hedabideek ere tokia egingo liekete sorkuntza horiei guztiei. Horrela, jendea hezita legoke musika ezberdinak entzuteko, eta ez betiko lau estilo ezagunak bakarrik entzuteko. *Management* enpresa asko eta txikiak leudeke, gure lana ateratzen saiatuko lirakeenak, eta ez gure lanetik bizitzen. ●

Filologoaren mugalari

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Honetan behintzat euskaldun guztiok ados egongo gara: urtea hasi berritan zure bizilekutik ihes egin beharra kontu latza da. Pasa den astean Iñigo Astizek telefonikoki kontaktatu ninduean, banekien asuntua ez zela beleitate bat. “Berria-n artikulua publikatu dudan momentutik hasi dira mehatxuak, ezin dut gehiago jasan. Muga pasatzen lagunduko didan norbait behar dut”. Astiz bezalako polemista zaildu bat, mota orotako elementuekin liskar dialektikoak eduki eta beti onik atera dena, hain estu? Berehala jarri nuen operazioa martxan: dagoneko salbu dago, aurpegi eta izen-abizen berriak eman dizkio gure *sorospen* agentziak; inork ezingo dio atzaparra gainean jarri.

Baina kontua finikitatu berritan, berriz jo zuen telefonoak. Borja Ariztimuño zen: “Irulegiko eskuari buruzko nire ikerlana publikatu denetik...”. Ez nion bukatzen utzi: “Ya, ya, *Proto*, imajina dezaket. Lasai, marroia nik deraukot”. Eta beste ebakuntza bat, beste paper faltsu batzuk, eta hura ere salbatuta. Baina ordurako ni moskeatuxe: normalean bestelako kargamenduak pasatzen ditugu Bidasoatik eta, bat-batean euskal *intelligentsia* erdia padura hauetan zirkulatzen jarri behar banuen, konprenitu beharko nuen zergatik, ezta?

Jarri naiz ba, abandonatu samar neuzkan epigrafiari eta paleoeuskarari buruzko nobedadeak errepasatzen, aurkitu dut *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari zientifikoaren azken zenbakia, irakurri dut goitik behera eta, klaro, orduan bai, orduan ulertu dut zergatik haserretu den jendea. “Dardarkariekin batera, deigarria da testu osoan albokari bakar bat ere ez agertzea eta, multzo osoa aztertuta, zenbait zalantza agertzen zaizkigu protoeuskararen ikuspuntutik”. Nor ez da ba sutan jarriko ta-



Joakin Gorrotxategi hizkuntzalaria Irulegiko eskuaren aurkezpenean.

maina horretako baieztapenez beteriko testu baten aurrean?

Noski, arrazoi osoz deitu diete “eus-kalsaltsako zipaio” eta “kolonizatzaile” ikerlariei, baita haien lanen berri eman duen kazetariari ere. Igual pixka-pixka bat pasatu da filologoaren ikerketa “garbiketa etniko” batekin konparatu duena, Irulegiko testuaren azterketa nazio oso baten “memoria desagerraraztea”-ren parekotzat jo baitu. Baina tira, nahiko zibilizatua izan da dena, deserriratzea aukeratu duen jendea gorabehera.

Gainera, ez dakit zertan pentsatzen ari ziren. Igual irudituko zitzairen publikoak jarrera eszeptikoak toleratzeko moduan zegoela aurretik jasandako desengainuen ondoren. Edo okerragoa: igual pentsatuko zuten euren diziplinaren berezko erremintak erabiliz aztertu behar zutela Irulegiko esku, publikoak esku horretan irakurri nahi izan duena konfirmatu beharrean. Harmailetan jende kopuru majo batek “sorioneku” ezagunaz gain deszifratuta baitzeuzkan

honezkero argi ez zeuden beste hitzak ere, metodo apotropaikoa erabiliz -bueno, batez ere potroak-. Eta denak beren eskutxoarekin kontent zeudenean, juxtu orduan etorri zaizkizu listomariak euren betaurrekoekin eta alkandorako patrikatxoak boligrafoz beterik, esanez horko hori euskara dela baieztatzen ere pixka bat gehiago ikertu behar dela.

Gure indar hutsez sinetsi duguna jakiteko datuak beharko balira bezala.

Dena den, filologo gizajoak. Ez dira ezertaz enteratzen. Ez dakite asuntu hau bigarren minututik bihurtu zela kamisetak, banderatzokak eta zilarrezko zintzilikarioak saltzeko pagotxa. Eta ikerketa akademikoa gehiago saritzen dela merkatuaren esku zorionekuari trabarik egiten ez badio. Tira, negozio paralelo batzuk ere sortu dira, klandestino samarrak izan arren: filologo-pasa honekin jarraitzen badut, aurten oporrak bi hilabete lehenago hartu baietz. Ari da orain ere baten bat deika: bai? Lakarra? Non eta zer ordutan? ●

ARGIA *Sariak* 2024

Euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren sariak

35. EDIZIOA



Urtarrilaren 26an Usurbilgo Atxega jauregian

Ekitaldia osorik ikusgai argia.eus webgunean, urtarrilaren 26an 20:00etatik aurrera

(H) ILBELTZA

euskal nobela beltzaren astea

Baztan
2024ko ilbeltzaren
22tik 28ra

ARGIA

